

ZERAIN

Urtekaria

2011



Museo bat baino askoz ere gehiago!



ETORTZEN BAZARA EZ DUZU ALDE EGIN NAHI IZANGO!

- Museoa handitu dugu, GAIA: Energeia eta Natura atal berriekin.
- 170 esperimentu interaktibo baino gehiago.
- Planetarium Digitala.
- Planetarium Txikia.
- Simulagailua: Errusiar Mendia.
- Animazio ekintzak eta tailerrak, adin guztietako jendeari zuzenduta.
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunea, ingurune aparta.

BERRIA



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunea**

Zientziaren kutxaGunea

Mikeletegi Pasealekua, 43-45 – 20009 Donostia

Tlf: 943 012 478. www.mirammon.org

kutxaespacio@kutxagunea.org

parte de ti



Kaixo irakurle!

Abuztuarekin batera Andramari eta San Roke jaiak heldu dira Zeraina, eta hauekin batera urtekariaren ale berria kaleratu dugu. Eta ia oharkabean, 24. alea egin dugula konturatu gara. 1988an hasitako bidean, zailtasunak zailtasun eta nekeak neke, urtero iritsi da festetarako garaiz urtekaria.

Ez da lan makala Zerain bezalako herri txiki batean, oso-osoki herritarrek egindako urtekaria kaleratzea. Baina horrela, historia, gure historia, gu geu ari gara idazten. Ea beste urte askoz horrelaxe jarraitzeko biderik izaten dugun, jende gehiagoren parte hartzearekin, ahal dela.

Beti bezala, eskerrik asko urtekari hau egiteko beren lantxoa eta lan potoloagoa egin dutenei; eta mila esker baita ere, diruz lagundu dutenei.

Ale hau ere zure gustukoa izango delakoan eskerrik asko zuri ere, irakurle, eta datorren urtera arte.



Artikulua
Orrialdea

Sarrera.....	3
Elkarriketa.....	6
Ekintzak.....	14
Aipagarriak.....	20
Berrikuntzak.....	25
Guraso elkarte.....	26
Zerain Dezagun Fundazioa.....	28
Argazki zaharrak.....	31
Maria Apaolazaren kartak.....	35
Patxi Saez de Egilaz: batzarkidea.....	38
Minatako garraioa.....	42
Zeraingo elizako gurutzea.....	43
Aiertzako Santa Barbara kaolin minak.....	44
Arrolako haizeolak edo jentil-olak.....	48
Bertsoak: 85-86 bertsolari txapelketa.....	51
Katea ez da eten.....	52
San Diegito, 10 urte.....	54
Errekorra Berlingo maratoian.....	57
Haurren txokoa.....	58

Egilea: Oa Kultur Elkarte

Lege gordailua: SS - 724-1996

Azala: Joxemari Telleria

Diseinua eta maketazioa: Ion Muñoa

Argazkiak: Udaleko artxiboa, Herri-eskola, Otatza, Larraondo, XaguArtea, Guraso elkarte, Aitziber Makazaga, Xabier Lazkanoiturburu, Haritz Iztueta, Patxi S. Egilaz, Josetxo Zufiaurre, Niko eta Arantza

Laguntzaileak: Aitziber Makazaga, Alaitz Makazaga, Andoitz Telleria, Miren Makazaga, Mariajexux eta Elena Mendizabal

Inprimategia: Antza Lasarte-Oria

Zerainen, 2011ko abuztuak 13

JOSETXO ZUFIAURRE: ETNOGRAFO IKERTZAILEA

“Herriari zor diot nik, herritarrek piztu baitidate lanean jarraitzeko motibazioa”



Arantzazu Muñea

Gaztetan delineante hasi eta ondoren marketinean diplomatu bazen ere, etnografia izan du umetatik pasio nagusi Josetxo Zufiaurrek. Euskal gaietarako eta etnografiarako zaletasuna aitarengandik jaso zituen. Don Joxe Miel Barandiaranekin izan zuen harremanak berriz, sendotu egin zion zaletasun hura: "Joxe Mielek esan zidan etnografia ikerketarako teknika ikasi nahi banuen berak erakutsiko zidala. Larunbat arratsaldero elkarrekin egoten ginen bi orduz, eta hura izan zen nire unibertsitatea". Ama Zeraingo Iñurrategi baserrikoa izanik, lotura handia izan du betidanik Zufiaurrek Zerainekin eta herriarekin zerikusia duten lan ugari egin du. Etnografiaraz, lehengo eta oraingo bizimoduaz, eta nola ez, Zerainez hitz egin dugu Josetxo Zufiaurrerekin.



Beasaingo La Salleko ikaskideekin batera ateratako argazkia. Erdian mahai gainean dagoena da Josetxo.

Gerra aurrean Beasainen jaioa zara.

35ean Beasainen jaioa naiz, bai. Baina ez kalean, kaskotik aparte. Eder altzari dendaren aldameneko etxean. Hiru senide gara eta hantxe jaio eta hantxe hazi ginen denok. Aita Beasaingo Zaldizurreta baserrikoa nuen eta ama Zeraingo Iñurrategikoa. Aita-amek ikusi zuten kale-etxean errentan jartzen baginen guk euskara ez genuela sekula ikasiko.

Oso erdalduna al zen orduko Beasain?

Bai. Beasaina Gaztelatik jende mordoa etorri zen. Trenak, eta batez ere, CAF fabrikak ekarri

zituzten. 1870ean hasita CAFek Gaztelako udaletxe guztiei kartak idazten zizkien gazte jendea hona bidaltzeko esanaz: lana zegoela eta gainera etxebizitzak egiten ari zirela. Gailegoak eta Andaluzak geroago etorri ziren. Baina edonola ere, Beasainen gaztelania zen nagusi.

Zuek, beraz, etxean ikasi zenuten euskaraz?

Bai. Gure etxean euskara besterik ez zen hitz egiten. Baina kalean batere ez. Nik badauzkat lagunak, gureak bezalaxe gurasoak biak baserritarrak izanik, euskaraz ez dakitenak. Garai hartan uste zen ez zela erabilgarria eta Francok egiten

zuen propagandak ere ez zuen laguntzen.

Eskolan ere Beasainen bertan hasi zinen.

Bai, ospitaleko mojekin ikasi nuen lehendabizi eta gero fraideekin. La Sallen nenbilela, 12 urterekin, apaizgai joan nintzen Saturrarana eta han egon nintzen hiru urte eta erdiz. Eta etorri nintzenean delineante-industrial ofizioa ikasi nuen. Garai hartan lan tekniko preziatua zen delineante-industrialarena. Etxean dirurik ez zegoelako perito edo ingeniari ikasketak egin ezin zituztenentzat aproposa. Ordizian, eskola profesionala iritsi baino lehen, bazen "artes y oficios" esaten



**GURE ESKERRIK BEROENA
OA KULTUR ELKARTEAREN
IZENEAN *ZERAIN DEZAGUN*
FUNDAZIOARI**



Ezkerrean, *Beasaingo Berripaperak* argitaratu zuenean. Eskuinean, Beasainen 2009an egin zioten omenaldian.

zitzaion beste bat eta CAFeko bi delineantek eskolak ematen zituzten han. Arratsaldero txirrinduz joatean nintzen eta han ibili nintzen sei urtez ofizioa ikasten.

Hiru urte eta erdiz apaizgai Saturraranen egon zinela esan duzu. Zer eman zizun seminarioak?

Euskal gaietarako zaletasun handia sortu zidan, batez ere, musikarakoa. Nik 12 urterekin seminariora joan nintzenean euskal abestirik ez nuen ezagutzen. *Agur Jaunak* entzuna nuen, eta baita eguberrietan Loinaz abesbatzak abesten zuen *Mesias Sarritan* ere, baina asko gehiagorik ez. Hara iritsi ginen

«Aralargo planoak erosten nituen. Baina aitarekin mendira joaten nintzenean konturatzen nintzen gure aitak Aralargo berri planoek ziotena baino hobeto zekiela»

eta bazen irakasle bat, Andoni Basterretxea, solfeoa ematen ziguna eta hark euskal abestiak erakusten zizkigun. Hura niretzat deskubrimendu bat izan zen. *Isil Isilik Dago* abesten ikasi nuenean, hura zen gauza polita.

Anekdotaren bat baduzu gogoan?

Bai, asko, baina musikarekin loturiko bat esango dizut. Nik libreta txiki bat hartu eta nire euskarari, erdal hizkiekin, kantatzen genituen abesti guztiak idatzi nituen. 50 bat euskal abesti erakutsi zizkigun Basterretxeak. Nire aldamenean eserita zegoena beti nire libretari begira aritzen zen eta behin zera esan zidan: "Hi Joxe, utzidak niri libreta hori.

Nire anaiak idazteko makina zeukak eta idazteko makinara pasatuta bi kopia egiteko esango zioat amari. Bat hiretzat eta bestea niretzat egingo diagu". Utzi nion eta hurrengo hilean han non datorren bere ama makinan eskribitutako euskal abestiekin. Hura zen gozada. Orduan abestu behar genuenean guk liburuxka hura irekitzen genuen, eta behin irakasle horrek galdetu zigun ea nondik lortu ote genuen hura. Guk azaldu genion guztia eta berari bat emateko eskatu zigun. Hartu zuen liburuxka eta erretorearengana joan zen. Orduan seminarioko erretoreak eta irakasle guztiek erabaki zuten multikopistan ale gehiago egitea seminarioko guztientzat. Egin



Josetxo elkarrizketaren egunean.

«Aralarren lan bat egiten ari nintzela azaldu nionean, pilotalekuak bilatu behar nituela esan zidan Joxe Miel Barandiaranek. Zur eta lur utzi ninduen hori esanda»



Aizkomendiko trikuharrian Joxe Migel Barandiaranekin batera.

zutenean nire ondoko lagunari eta niri bulegora deitu eta bana oparitu zizkiguten. Ondo gordeta daukat nik hura.

Seminariotik bueltan delineante hasiko zinen beraz lanean?

Bai. Hasieran delineante egiten nuen lan Bernedonean. Han, gutxi gora-behera, 64. urtean hasi ginen Alemaniarako patente batekin golda handiak egiten. Andaluziara edota Aragoi aldera saltzen genituen haiek. Berriak zirenez, teknikoki aberiaren bat-edo izaten zutenean, konponduko bazen teknikoki gutxieneko bat jakin egin behar zen. Orduan arlo komertzialera pasa ninduten. Azken bi urteak salmenta-buru lanetan eman nituen. Baina 67. urtean fabrika itxi egin zen. Gure etxean egun batean lanik gabe geratu ginen aita eta biok. Guk hiru ume bagenituen eta laugarrena bidean. Gero kontaktu baten bidez Eibarko fabrika batean hasi nintzen. Baina denboraldi bat pasa eta gero konturatu nintzen hura ixtera zihoala eta neure buruari esan

«Gure etxean
euskara besterik ez
zen hitz egiten.
Baina, Beasainen,
kalean, batere ez»

«Seminarioak euskal
gaietarako zaletasun
handia sortu zidan,
batez ere,
musikarakoa»

nion ez zitzaidala hori bigarren aldiz gertatuko. Eta periodikoan iragarki bat ikusi eta izena eman nuen. Salmenta lanetan ibili nintzen han. Harategietan produktua pisatu eta automatiko prezioa ematen duten makina horietakoak saltzen nituen. Produktua berria zen eta ondo saltzen zen. Orduan hasi nintzen pixka bat burua altxatzen, baina familia ez nuen batere ikusten.

Edonola ere, urterik gehienak Kutxan eman zenituen lanean.

“Caja de Ahorros Municipal” esaten zitzaion orduan. Jakin nuen Beasainako arduraduna behar zutela, aurkeztu nintzen eta postua eman zidaten. 71. urtean sartu nintzen ni “Caja de Ahorros Provincial”-ean, orain Kutxa denean. Ni delineantea izanik, ikasten hasi behar izan nintzen. Bi urtetan arratsaldero, astean lau egunetan, EUTGra joaten ginen “tecnicia bancaria” ikastera. Geroztik, ikasten jarraitu eta marketineko diplomatura atera nuen. Kutxak ikasteko eta profesional mailan aurrera egiteko aukera eman zidan.

Zure zaletasun nagusia, ordea, etnografia izan da. Nondik datorkizu pasio hori?

Aitarengandik. Kuriositatea eta jakin-mina aitarengandik. Nik Ordiziara ikastera joan nintzenerako algebra eta trigonometria banekizkien aitak etxean erakutsita. Eta aitak bere kasa ikasita zekizkien. Gure aita oso ikaslea zen. Ikaragarria. Gu



Aitarekin Ekaingo leizezuloko margolanak ikusten.

normalean mendira elkarrekin joaten ginen, aita, anaia eta hirurok, eta askotan, aita eta biok ere bai. Aitak gauza asko zekizkien. 1972. urtean aitarekin Aralarren lan bat egiten hasi nintzen.

Zer lan mota egin zenuen Aralarren?

Aralarri buruz dendetan zeuden planoak erosten nituen nik. Baina aitarekin joaten nintzenean konturatzen nintzen gure aitak Aralargo berri planoek ziotena

baino hobeto zekiela. Erabaki nuen plano osatu bat egin behar nuela neuretzat. Horretan hasi ginen aita eta biok larunbatero eta igandero. Eta joaten nintzenez gero, artzainei galdetzen nien zein herritakoak ziren eta zein etxetakoak eta informazio hori guztia idatzi egiten nuen zein sarrietan zein artzain zegoen jakiteko. Estudio moduko bat egiten nuen niretzat. Eta ia lana bukatu nuenean trikuharriak jartzea pentsatu nuen eta Don Joxe Mielengana jo nuen.



Auñamendiko tontorrean aitarekin.

«Joxe Miel Barandiaranek esan zidan nik neuzkan datu guztiak herriarengandik jaso nituela, eta inork ez duela eskubiderik herritik jasotzen duena beretzat bakarrik gordetzeko; informazioa behar bezala landu eta berriz ere herriari itzuli behar zaiola»

TELLERINE BASERRIA



NEKAZALTURISMOA

Jose Migel Arrondo Irastorza

Aizpea Auzoa
Tel. 943 58 20 31
20214 ZERAIN



Etnikerren bileran Donostian 1979an. Goian ezkerretan dago Zufiaurre. Beste aurpegi ezagun asko ere badira tartean.

Joxe Miel Barandiaranekin kontaktuan jarri zinen beraz?

Bai. Koaderno bat eman zidan trikuharriak non zeuden azaltzeko. Gero, zertan nenbilen galdetu zidan eta azaldu nionean zera esan zidan: "Aralarren ari zara? Ba, pilotalekuak bilatu behar dituzu". Erabat harrituta geratu nintzen ni eta gaineratu zuen: "Harritu egiten zara, pilota entzun duzunean frontisarekin gogoratu zarelako". Eta guztia azaldu zidan. Artzainek aitzurra hartu eta ordeka-unara batean laukizuzen bat egiten zuten eta erdian beste marra bat, teniseko kanpoan bezalaxe. Sarerik gabe eta inolako erremintarik gabe, artzain pare bat jarri alde banatatik eta pilotan aritzen ziren.

Aurkitu zenuen pilotalekurik Aralarren?

Bai. Segituan azaldu ziren 9, eta geroxeago 12, denak, gainera, bere izen eta guzti.

Barandiaran aipatu duzu. Zer jaso zenuen berarengandik?

Barandiaranek esan zidan nire lana bukatzean berari eramateko eta eraman nion. Ikusi zuenean

«Ohiturak izugarri ari dira aldatzen, baina askotan zentzurik gabe. Berriak zaharra alde batera uzten du. Hori da pena»

«Nire ikerketa etnografikoetan atera ditudan ondorioak azaldu besterik ez ditut egin eta hortik sortu dira liburuak»

esan zidan ondo zegoela eta hurrengo pausua hura publikatzea zela. Nik erantzun nion ez nuela egin publikatzeko, neuretzako lan konpleto bat izateko baizik. Orduan irakaskuntza ederra eman zidan. Esan zidan nik neuzkan datu guztiak herriarengandik jaso nituela, eta inork ez duela

eskubiderik herritik jasotzen duena beretzat bakarrik gordetzeko; informazioa behar bezala landu eta berriz ere herriari itzuli behar zaiola. Jota utzi ninduen. Oraindik ere negar malkoak eragiten dizkit gogoratzean.



Bilobei Igartza erakusten.

Orduan pentsatzen dut zure lana publikatu egingo zenutela. Barandiaranek urtero *Anuario de Eusko Folklore* izeneko aldizkari bat ateratzen zuen etnografiako artikuluekin. Hantxe publikatu zidan 26. zenbakian.

Ikerketarako teknika ere erakutsiko zizun Barandiaranek. Nik nire lan guztiak egin ditut bere teknikarekin. Aralarri buruzko lan hura publikatu ondorenean Joxe Mielek esan zidan etnografiako ikerketarako teknika ikasi nahi banuen berak erakutsiko zidala. Esan zidan larunbat arratsaldetan joaten banintzen elkarrekin egongo ginela bi orduz. Eta hura izan zen nire unibertsitatea. Zentzu handiko gizona zen. Apartekoa.

Geroztik lan asko egin dituzu. Nonbait irakurri dut 9 liburu eta 60 bat artikulua eginak badituzula.

Liburuak baditut 13 eginak. Baina denak ez daude publiko osoarentzat. Badira hiru behintzat publiko orokorrarentzat ez direnak. Bat adibidez, koadrilako historia, argazkiekin etab. Edota Iñurrategiko Goiatarren familiaren historia 1860. urtean hasita egin nuena.

Euskal Herriko atlas Etnografikoan ere parte hartu zara.

Etnikerren Gipuzkoako idazkaria naizenez, atlasaren Gipuzkoako arduraduna naiz. Sei ale

«Zuek lehenak izan zineten herria bat eginda lanean hasten.

Baita gaur egun herrian daukazuen hauteskunde sistemarekin ere. Orain herri gehiagotan ere antzeko ereduak erabiltzen dituzte, baina zuek izan zineten aurrekaria jarri zenutenak. Sistema hori eredugarria da.»

publikatuta dauzkagu eta 7.a pronto, baina dirurik ez daukagu. Ez Eusko Jaurlaritzak, ez Diputazioak, inork ez digu dirurik ematen.

Horrez gain, Aranzadiko kidea eta Eusko Ikaskuntzakoa ere bazara.

Bai eta oraintxe utzi dut Eusko Ikaskuntzakoa den Jose Miel Barandiaran Fundazioaren patrono eta diruzain-postua lau urteren ondoren.

Beasaingo ikastolaren sorreran ere ibili zinen.

Majo kosta zitzaigun, baina Lazkaoko eredu jarraituz 1967ko errege bigarrenaren hasi zen

«Astigarreta Zerain baino dezente handiagoa zen, 40 baserri bete-betean zituen. Orain hutsik dago. Zerainen ere berdina gertatuko zen zaindu izan ez balitz»

Beasainen ikastola 27 neska-mutilekin. San Inazio kaleko sotano batean, ez komun eta ez ezer. Umeak oso kontentu zebiltzan eta hori ikusita, sekulako eskari gorakada izan zuen ikastolak eta segituan hazi zen.

Zure ofizioa izateaz gain, lanean eman duzu bizitza osoa. Baita jubilatuta ondorengo urteak ere. Beraz, gizartearen zerbitzari ere izan zarela esan daiteke. Zerk bultzatuta?

Ez dakit zerbitzari izan naizen. Nire ikerketa etnografikoetan atera ditudan ondorioak azaldu besterik ez ditut egin eta hortik sortu dira liburuak. Eta herriari serbitu? Herriari zor diot nik. Herriarrek eman didate gogobetetasuna eta piztu didate lanean jarraitzeko motibazioa.

Gizarteari begirako lan horretan gaur egungo belaunaldi berriak nola ikusten dituzu?

Joxe Mieli entzundako ideia bati tiraka erantzungo dizut oraingoan ere. Hark esaten zuen Jesukristorengandik guregana 30 belaunaldi baino gehixeago besterik ez daudela eta orain dela 100 urte arte, ia 2.000 urtez, gauzek berdintsu iraun zutela, baina irratia, periodikoa eta batez ere, telebistaren iritserarekin ohitura asko pikutara hasi zirela joaten. Ohiturak izugarri ari dira aldatzen, baina askotan zentzurik gabe. Berriak zaharra alde batera botatzen du. Hori da pena.



Etnikerreko kideek Zerainen egin zuten urteko bilera bat 1996an.

Jose txo Zufiaurre eta Zerain

"Urte asko dira Zerainen lanean oso ondo hasi zinetela eta halaxe jarraitzen duzue"

Ama Iñurrategikoa zenuen. Baina horrezaz aparte zein lotura izan duzu Zerainekin?

Ez da ama Iñurrategikoa izatea bakarrik. Gure aitari gerran galtzaile izatea tokatu zitzaion, abertzalea zen-eta. Ihes egin behar izan zuen eta Bilbon egon zen lehenik eta kartzelan gero. Beraz, gerra garaian ama Zeraina joan zen, Iñurrategira. Horrez aparte, aiton-amonak hil ziren eta gure amaren anaia Paulino bakarrik geratu zen etxean. Horregatik, guk eskolan jai genuen bakoitzean Iñurrategira joaten ginen. Baina ez hori bakarrik. Gose garaian, 1942, 1943, 1944 urte inguruetan, ez zen ailegatzen fabrika irabazten zenarekin eta generoa ere ez zegoen asko. Familia aurrera atera behar eta, gure amak bere anaia Paulinori eskatu zion Aiertza gainean zeukan otadia erretzeko han baratza jarri nahi zuela-eta. Han ibili zen gure ama gajoa, 9etarako gu eskolara gosalduta bidali, eguerdiko bazkaria aita eta guk bazkaltzeko preparatu, 11tan estaziora korrika joan korroa (trena) hartzera, Ormaiztegin jaitsi eta handik Mutiloatik eta Kalpatxotik barrena Iñurrategira joaten zen. Han astoa hartu, astoaren gainean erremintak hartu eta Aiertza gainera igotzen zen patata saila eta beste barazki batzuk egitera. Eta gero iluntzerako berriz buelta etxera. Astea hiru aldiz igual egiten zuen hori.

Beasaingoa izan arren, aita ere maiz joaten omen zen Liernira erromeriara, ezta?

Gure aita soinu-jolea zen. Beasaingo gazteek igandero bizikletan joan eta Liernin erromeria egiten zuten. Eta gure aita izaten zen soinu-jole. Han ezagutu zuen gure ama ere. Baina gerrak izugarrizko pasada eman zion gure aitari. Aurrez soinu-jolea eta alaia zen bezala, gerra ondorenean ez zen etxetik atera ere egiten, mendira soilik joan nahi izaten zuen. Gero, gainera, gose garaian soinua saldu egin behar izan zuen txirrindua erosteko. Hilean behin, gauz eta ezkutuan, Lezaun eta Arizaleta ingurura joaten ziren patatak erostera, hemen nahiko jan ez zen-eta.

Gaur egunera begiratuta. Kanpotik nola ikusten duzu Zerain?

Inponente. Begira, orain dela urte batzuk Luis Pedro Peña Santiagok esan zuen Zerain zela Gipuzkoa hobekien lanean ari zena eta ikusi da



Urtekariko kolaboratzaileek 2008an egindako afarian.

hori egia dela. Orain herri asko hasi dira, baina zuek lehenak izan zineten herria bat eginda lanean hasten. Baita gaur egun herrian daukazuen hauteskunde sistemarekin ere. Oso sistema aurrerakoa da. Orain herri gehiagotan ere antzeko ereduak erabiltzen dituzte, baina zuek izan zineten aurrekaria jarri zenutenak. Sistema hori eredugarria da. Beste gauza bat ere bai. Oraindik ez dut San Telmo museo berria ikusi. Aurrekoan askotan izan nintzen eta hark bazuen etnografiarako zati bat, baina hura itxi zen eta Gipuzkoako etnografiako museo bakarra non egon da? Zerainen. Gipuzkoa osoan bakarra.

Eta etorkizunera begira nola ikusten duzu herria?

Begira, Beasaingo Udalak urtero ateratzen du liburu bat Beasaingo Paperak izenekoa. Datorren urtekoa nik eta beste batek egingo dugu Astigarretari buruz. Astigarreta Zerain baino dezente handiagoa zen, 40 baserri bete-betea zituen. Orain hutsik dago. Zerainen ere berdina gertatuko zen zaindu izan ez balitz. Lanean hasi izan ez bazinete, jendea kanpora joango zen. Astigarreta pikutara joanda dago. Eta horrelaxe beste herri asko ere bai. Orain hasi da jabetzen herri txikietan jendea. Baina orain dela 20 urte Zerain eta zeraindarrak bakarrik jabetu zineten. Urte asko dira Zerainen lanean oso ondo hasi zinetela eta halaxe jarraitzen duzue. Orain gainera esperientzia daukazue eta horrek lagunduko dizue aurrera egiteko.

ANDRAMARI JAIK

Ohi bezala, iazko Andramari jaietako lehen tradiziozko ekintza hilaren 13ko gibel-jatea izan bazen ere, iaz nobedade batek aurre hartu zion: herritarren arteko lehenengo pilota txapelketa jokatu zen plazako frontoi txikian. Guztira hogeit hamar herritar inguruk parte hartu zuten eta uztailean zehar ligaxka eta kanporaketa nagusiak jokatu ondoren, festetan jokatu ziren finalaurrekoak eta finala. Denen artean, azkenean Eneko Arzelus izan zen garaile.

Andramari bezperan, umeak izan ziren protagonista egunean zehar. Goizetik hasita puzgarriak eta rokodromoa izan zituzten. Eguraldiaren beldurrez, pilotalekuan aritu behar izan zuten. Arratsaldean berriz, jolasak, antzerkiak, dantzak, merienda, buruhandiak eta beste hamaika entretenimendu izan zituzten. Iluntzean, herriko bertsolari gazteek egindako pregoiarekin festei hasiera ofiziala eman ondoren, txekorra janez eta sagardoa dastatuz jende ugari bildu zen goizalde arte. Gauean Trakets taldearen doinuekin majo astindu zituzten hankak inguratu zirenek.

Andramari eguerdian Meza Nagusiaren ondoren, pilota txapelketako finala eta txakolin dastatzea izan ziren. Gainontzean bola txapelketa ere egun guztian zehar jokatu zen. Arratsaldean, herri kiroletan Zeraingo taldeak mendean hartu zuen Idiazabalgoa, eta 40 urtetik gorakoen dantza txapelketak jende asko inguratu zuen. Iluntzean trikipoteoa eta gazte afaria izan ziren. Eta gauean berriz, erromeriaren erdian, asto karrerarekin nahiko barre egin ahal izan zuen jendeak.

San Roke egunean, dantza-soka egin zuten herriko agintariak aspaldiko ohitura berreskuratu eta hirugarren urtez jarraian. Eta ondoren beste nobedade bat: herriko artzainek egindako gazten probaketa Errioxako ardoak lagunduta. Punta-puntako gaztak ekarri zituzten Zeraingo artzainek. Arratsaldean, herriko pilotari gazteek inguruko herrietakoen kontra hainbat pilota partida jokatu zituzten. Gauean, herri afaria umore ederrean joan zen



Joxe Mari Telleria eta Kontxi Gabiria herritarrek ere animatu ziren dantzara.



Lehen aldiz jokatutako herritarren pilota txapelketak giro ederra jarri zuen.



Pregoilari berriak herriko bertsolari gazteak. Eta herriko artzainen gazta mundiala.



Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia bertsolariek lagunduta. Hiru eguneko jaien ondoren, atsedena hartzeko egunak iritsi ziren abuztuaren 17an herria txukundu osten.

PEREGRINAZIOA

Irailaren 4an urteroko erromesaldia egin zen Arantzazura. Goizeko 8etan herriko plazatik irten ziren erromesak. Batzuk bertatik oinez eta

beste batzuk Aldaola aldera arte kotxez joanda, Urbiara jo zuten. Han denek elkarrekin bazkaldu, soinuaren laguntzaz kalejira batzuk dantzatu eta arratsalderako iritsi ziren Arantzazura. Eguraldiak lagunduta, egun pasa bikaina egin zuten.

XVI. AZOKA EKOLOGIKOA

Azken urteotan egin gabe egon ostean, iazko azoka ekologikoaren aitzakian, txondorra egin zen berriro Zerainen. Antxaputxu ondoan muntatu zuten Xabi aguazila ikazkin zela, eta azoka egunean su eman ondoren, beste hamar egunez kea zeriola egon zen. Gainontzean, jende ugari bildu zen urte bat gehiagoz ere XVI. azoka ekologikora. Aurten gainera lehen aldiz Goierriko Udazken Ekologikoaren barnean antolatu zen. Salmenta postuak produktuz beteta egon ziren eta tailerrek jendea gozarazi zuten; batik bat gaztentxoena. Urteroko moduan sagar muztioak jendearen ahoa goxatu zuen. Arratsaldean ez zen azoka-posturik egon, baina aizkora saio bikaina egin zuten herriko eta inguruko hainbat aizkolarik.

KULTUR ASTEA

Bigarren urtez jarraian, kultur astea urrian egin zen iaz ere. Hain zuzen



Antxaputxun egin zen txondorra. Ikazkina ere bertan egon zen txabola eginda.



Azoka eguneko arratsaldean aizkolariak aritu ziren. Tartean Xabi eta Eneko.



ONDARRE

ETXERA KO ETA
SOZIDADERAKO
HARAGI ONENA

Zurbano kalea
20214 SEGURA

Tel: 943 800326



Kultur asteko patata tortila lehiaketak giro bikaina sortu zuen. Musika emanaldirik ere ez zen falta izan egitarau zabalean.

ere urriaren 20tik 31ra luzatu ziren kultur asteko ekintzak. Hamar egunez, hitzaldiak, kontzertuak, bazkariak eta bestelako ekintzak izan ziren herrian. Asteazken zehar, iluntzetan hitzaldiak izan ziren. Bigarren urtez jarraian kantu bazkaria ere izan zen larunbatean, eta nobedade moduan, herritarren arteko I. tortila lehiaketa egin zen arratsaldean. Urtero bezala, kultur astearen barruan jubilatuen eguna ere ospatu zen.

GABONAK

Gabon egunean zehar herrian gabon kantak abestuz herritar talde bat ibili zen egun osoz herriko etxe guztiak pasatuz. Eskolako haurrak beren irakasle eta gurasoei goizez ibili ziren herri inguruko etxeetan. Iluntzean, haurren gozamenerako, Olentzero etorri zen menditik behera, gurdian haurrentzat opariak eta denentzat gaztaina erreak ekartzera.

GOIERRIKO MEATZE GUNEEN JARDUNALDIA

Abenduaren 22an, Zerain, Mutiloa eta Ormaiztegi Udalek elkarlanean antolatuta, Goierriko meatze gunearen etorkizuna lantzeko jardunaldia egin zen. Egunduz hitzaldi eta eztabaidetan, besteak beste Aizpeko burdinaren mendiaren geroaz aritu ziren, Aizpittan.

URREZKO AIZKORAKO SAIOA

Urtarrilaren 22an, larunbata, *Urrezko Aizkora* txapelketako saioa jokatu zen



Herriko etxe guztiak alaitu zituzten Gabon egunean kantari ibili zirenek.



Meatze guneen etorkizunaz hitzaldi interesgarriak entzun ziren lehen jardunaldian.

Zeraingo pilotalekuan. Iluntzeko 6:30etatik aurrera, zortzi aizkolari aritu ziren egurrak mozten; tartean Xabier Dorronsoro, aguazila, Mugertza III.a lagun zuela. Zerainen irabazi eta finalerako txartela lortu zuten zilarrezko mailan.

TUTE ETA MUS TXAPELKETAK

Otsailaren 5ean, Liztormendi elkarteko tute txapelketa jokatu zen. Bikote guztien artean, Jose Manuel Oria eta Jesus Komontes gailendu ziren finalean Maritere Telleriari eta Santi Alustizari irabazita. Handik 15



Jose Manuel Oria eta Jesus Komontes gailendu ziren tuteko finalean.



Santa eskean ere talde majoa elkartu zen.



Segura aldera eraman zuten museko txapela Alberto Biain eta Xeberiano Intxaustik.

egunera, otsailaren 19an, mus txapelketa jokatu zen. Guztien artean, Xeberiano Intxausti eta Alberto Biain segurarrek jantzi zuten txapela.

SAN BLAS EGUNA

Otsailaren 3an, iluntzean, San Blas eguna ohi bezala Burgomendiko ermitan ospatu zen. Mezaren eta janari bedeinkapenaren ondoren, sozidadean merienda izan zen. Ohiturari jarraituz herritar ugari bildu zen ospakizunera.


SANTA AGEDA BEZPERA

Santa honen izenean... aurten ere herritar talde bat bazkalondorenen

ITURRIOZ S.A.

Erainkuntza eta eskabazio lanak

Eziolatza poligonoa, 24 B
20213 IDIAZABAL (Gipuzkoa)



Telefonoa: 943 187 556 - Fax: 943 187 356



Benetan ikusgarria izan zen Iduzkilore taldearen antzerkia.



Bertso-afaria egin zen emakumeen eguna ospatzeko.

Barbari auzotik hasita, etxez etxe ibili zen, tartean lehengo kopla zaharrak kantatuz. Entzuleek gozatu zuten eta baita eskuzabaltasunez erantzun ere, batzuetan kafea eta pattarra, beste batzuetan mokadutxo, eta denetan dirua emanda. Bigarren urtez jarraian, bildutako dirua Haitiko lurrikaran izandako kalteei aurre egiten laguntzeko eman zen, Herriak Elkarlanean GKEaren bitartez.

ENDIKA ALUSTIZA MEMORIAIA

Otsailaren 27an jokatu zen Endika Alustiza zenaren omenezko XVIII. bola txapelketa Liztormendi bolalekuan.

ESKOLAKO HAURREN INAUTERI JAIA

Eskolako haurrek ezin hobeto ospatu zituzten aurten ere inauteriak. Martxoaren 7an, astelehen-inauteri egunean, antzerki bikaina eskaini zuten eliz atarian guraso, lagun eta herritarren aurrean. Ondoren, dantza eta kanta ibili ziren merienda garaian, inauteriak ospatzen.

ANTZERKIA INKISIZIOARI BURUZ

Martxoaren 12ko iluntzean, Iparaldeko Iduzkilore taldeak *Lapurdi 1609-1909, gertakizun lazgarrien oroimenez* izeneko antzezlan eskaini zuen Zeraingo elizan, kultur elkarteak eta Segurako Iparra-Hegoa ekimenak elkarlanean antolatuta.

BERTSO AFARIA EMAKUMEEN EGUNAREN OMENEZ

Emakumeen Nazioarteko eguna ospatzeko bertso-afaria egin zen martxoaren 12an Alaia Martin eta Amaia Agirre bertsolariekin Oiharten.

HERRIAN IBILBIDE BOTANIKOEN SEINALIZAZIOA

Martxoan amaitu ziren herrian bost ibilbide botaniko seinalizatzeko lanak. Gure kulturen bertako landarediaren usadiozko erabilpena jaso eta ezagutzera ematea dute helburu ibilbide hauek. Batetik, herrian zehar seinaleak jarri dira eta bestetik arrastoak markatu dira mendian.



**GURE ESKERRIK
BEROENA
OA KULTUR
ELKARTEAREN
IZENEAN**

***LIZTORMENDI
ELKARTEARI***


Herritar ugari elkartu zen San Isidro eguneko bazkarian.

Ederki asko dantza egin zuten herriko haurrek suaren ondoan.

JACKELINE URLAREN HITZALDIA

Martxoaren 31n, Jackeline Urla antropologo estatubatuarrak *Zerain: hitza, harri, herri* izeneko hitzaldia eman zuen euskararen transmisioak gure herriko garapenean izan duen eragina mintzagai hartuta. Hitzaldian Jakoba Errekondo izan zuen lagun.

SAN ISIDRO EGUNEAN HERRI-BAZKARIA

Azken bi urteetan bezala, aurten ere San Isidro egunean herri-bazkaria egin zen baserritarren eguna ospatzeko.

PARKE NATURAL EN EGUNA

Maiatzaren 24an, parke naturalen nazioarteko eguna ospatzeko Asier Arresek, Iraitz Zubeldiak eta Jakoba Errekondok hitzaldia eman zuten. Asteburuan ibilaldi bat egin zen parke naturalaren Zeraingo zatian.

SAN JOAN BEZPERA

San Joan bezperan, ekainaren 23an, ohi bezala suaren bueltan elkartu zen herria dantzatu, abestu, jan, edan eta elkarrekin usadioa ospatzeko.

MUTILOARA VIII. JAITSIERA

Uztailaren 1ean, Mutiloako jaien hasieran, zeraindarrak elkarrekin oinez jaitsi ziren festa giroan, musikari ugaziz lagundurik Mutiloko sagardo dastaketara.

JUBILATUEN URTEROKO IRTEERA

Uztailaren 9an, urtero egiten den jubilatuen eskurtsioa egin zen Pasaia. Ontziak nola egiten ziren ikusteaz gain, elkarrekin egunpasa


la 80 lagun jaitsi ziren kalejira giroan Mutiloako festetan sagardoa edatera.

Aurten Pasaia egin zuten urteko eskurtsioa herriko jubilatuek.

ederra egiteko aukera izan zuten herriko adinekoek.

BAITA ERE

Ekintza hauez guztiez gain, orain arte bezala, joan den urte honetan ere beste hainbat ekintza egin dira:

Ingelesko kurtsoak, Aste Santuan eta udako oporraldietan haurrentzat aisialdirako jolasak eta tailerrak, dantza ikastaroa, yoga ikastaroa, beste hainbat hitzaldi (tartean Nabarralde elkartekoek martxoan emandakoa), etab.

JAIOTZAK



Maddi Telleria Makatzaga 2010-2-24



Kizkitza Garzia Araiztegi 2010-4-2



Amets Ojanguren Katarain 2010-7-5



Elorri Harreguy Urbistondo 2010-12-31

BIZTANLEAK

Urtean zehar hainbat alta eta baja izan ondoren, hauen artean 4 jaiotza eta heriotza 1, 2010 urte bukaeran 258 biztanle zeuden erroldatuta Zeraingo udaletxean.

BOLALEKUA

Liztormendi bolalekuan hobekuntza bat egin zuten iazko abuztuan. Inguru guztian barandila jarri zuten, jendea bolajokoa ikusterakoan erosoago egoteko eta arriskua gutxitzeko asmoz.

HERIOTZAK

Trini Mugika Etxeberria 2010-3-20



2010-2011 IKASTURTEKO HERRI-ESKOLAKO HAURRAK

Aizpea Elortza Elorza
Eki Iturrioz Sodupe
Ortzi Harreguy Urbistondo
Unai Eguren Retolaza
Uxue Saez de Egilaz Junkera
Eneritz Iztueta Etxeberria
Itxaso Lazkanoiturburu Alustiza
Ekain Ansoleaga Centeno
Nora Iztueta Etxeberria


INAZIO ZABALO OMENDUA

2010ko irailaren 5ean Legazpin ospatu zen Gipuzkoako Artzai Egunean, Zerainen hainbat urtetan artzain ibili den Inazio Zabalo omendu zuten.

2010-2011 IKASTURTEKO HAURRESKOLAKO HAURRAK

Araitx Larrea Salsamendi
Irati Eguren Retolaza
Maddi Telleria Makatzaga
Lur Elorza Altuna


IRISGARRITASUN SARIAK

Eusko Jaurlaritzako Turismo sailak irisgarritasunen ziurtagiriak eman zizkien Zeraingo hiru establezimienturi, azaroaren 12an. Turismo bulegoa, Aizpitta adieraztegia eta Oiharte nekazalturismoa izan ziren sari hau jaso zutenak.



OTATZA SAGARDOTEGIA
ZERAIN GIPUZKOA
TEL. 943 80 17 57

MIKEL ORIA SARITUA

Mikel Oriak 2010-2011 XXI. Beasaingo Idazlehiaketan DBHko B mailan aipamena jaso zuen "Maitasuna" izeneko bertso sortarekin.

INOZENTZIO OLEAREN HERIOTZA

Urtekari honetan urte askotan hainbat artikulu idatzi zituen eta Mendarte baserrian 1921ean jaio zen Inozentzio Olea, 2010eko azaroaren 12an Legazpin hil zen. Goian bego.

BASAZABAL SARITUA

2010ko azaroaren 24an Erresuma Batuan ospatu zen WORLD CHEESE AWARDS gazta lehiaketan Basazabalgo Javier Muñoak, Idiazabal izendapeneko gazta batekin zilarrezko dominetako bat lortu zuen. Lehiaketa honetan mundu mailako 29 herrialdetako 2500 gazta aukeztu ziren.

RALLY RAC VASCO-NAVARRO

Rally RAC vasco-navarro historikoa pasa zen Zeraindik azaroaren 20an, Mutiloatik etorri eta Aztiriara joan ziren, arratsaldean lehen itzulian eta gauaz bigarrenean. 25 urte baino gehiago dituzten autoek hartzen dute parte bertan.



BIDEGILEAK

2011ko abenduan kaleratu zen Bidegileak saileko alean, Arantzazu Muñoak *Frantzisko Inazio Lardizabal Urretabizkaia 1806-1855* tituludun liburuxka idatzi zuen. Eusko Jaurlaritzak argitaratzen dituen Bidegileak sail hauetan Elixabete Garmendiak ere idatzi izan du; tartean, 2003an, *Karmele Goñi* 1926- idatzi zuen

ALDABE KOOPERATIBA SARITUA

Noticias taldeak ematen dituen Bertan sarietan, turismo arloan Zeraingo Aldabe Koop. Elkarteari eman diote saria. 2011ko martxoaren 24an Beasaingo Igartza jauregian jaso zuten saria.

ZERAIN-EZKIO KORUAK

Zeraingo koruak maiatzaren 8an Ezkioko herriko jaietan bertako koruarekin batera kantu emanaldia eskaini zuen. Hurrengo igandean, maiatzaren 15ean, San Isidro eguna ospatuz, emanaldia errepikatu zuten Zeraingo elizan.



Zeraingo Udala

**OA KULTUR ELKARTEAREN
IZENEAN
GURE ESKERRIK BEROENA
ZERAINGO UDALARI**

KORRIKA 17

Korrika 17 AEKk antolatuta Trebiñon hasi eta Donostian bukatu zen aurtengoan. Zerainen, apirilaren 13an eguerdiko ordubata inguruan pasa zen, Seguratik Mutiloara bidean. Beste urteetan bezala aurten ere, herriko Udaletxea, Liztormendi elkarte, Oa kultur elkarte, Basarte guraso elkarte, Herri Eskola, herriko zerbitzuak eta herritarren artean bildutako diruaz erosi dira kilometroak. Testigua eramaten, hauen izenean zortzi pertsona desberdin izan dira. Aurtengoan AEKak Euskaltzaindia omendu duenez, Zerainen Mikel Zalbide euskaltzainak eraman zuen testigua, udaletxe aurretik Antxaputxura. Apirilaren 8an Liztormendi elkarte afaria egin zen Korrikaren alde dirua biltzeko eta aldi berean, Mikel Zalbide euskaltzainari omenaldia egin zitzaion.


AITZIBER MAKATZAGA GIPUZKOAKO BOLA TXAPELDUN

Maiatzaren 29an Ereñozun jokatu zen Gipuzkoako Bola Txapelketan, emakumezkoen artean Aitziber Makatzaga izan zen irabazle. Lehendik ere hainbatetan lortutako txapela berriro jantzi zuen.


MANDIO
TABERNA


Herriko plaza
20214 ZERAIN
Tel.: 943 80 17 05

EUSKAL HERRIKO TXIRRINDULARI ITZULIA

Euskal Herriko txirrindulari itzuliko lehen etapa Zeraindik pasa zen apirilaren 4an arratsaldeko lehen ordutan, Mutiloatik Segurara bidean, eta bigarren bueltan, 16:30 aldera Aztiritik etorri eta, lehen aldiz, Barbari gainera igo ziren, handik Zegamara jaisteko.



HAUTESKUNDEAK

2011ko matizaren 22an Udal eta Foru Aldundirako hauteskundeak izan ziren. Ondorengo emaitzak izan ziren:

Batzar Nagusiak:

Hautatzaileen zenbatekoa: 216
Boto emaileak: 177
Baliogabeak: 2
ARALAR: 7
BILDU: 88
EAJ/PNV: 72
H1:8

Udal hauteskundeak:

Hautatzaileen zenbatekoa: 216
Boto emaileak: 164
Zuriak: 7
Baliogabeak: 13
Jose Manuel Oria Alustiza 124
Andoni Alustiza Etxaluze 91
Haritz Iztueta Arakama 102
Itxaro Alustiza Lasa 117
Joxemari Telleria Lezeta 93
PP 1

Batzar Nagusietan batzarkide:

Gipuzkoako Batzar Nagusietan Bildu koaliziotik Patxi Xabier Saez de Egilaz Murgiondo zeraindarra batzarkide izango da hurrengo lau urteetan.

Udal hauteskundeetan gorabeherak

Udal hauteskunde hauetan eskualdeko Hauteskunde Batzordean izandako akats informatiko baten ondorioz, Joxemari Telleriari dagozkion botoak ezeztatu egin zitzaizkion, beraz PPK izandako boto bakarrarekin, zerrenda horretan lehenengo zegoen Rafael Baena madrildarrari eman zitzaion ordezkaritza. Zeraingo Herri Kandidaturak erabaki horren aurka helegitea jarri zuen Euskadiko Auzitegi Gorenean lehenengo eta Madrilgo Auzitegi Konstituzionalean ondoren. Baina biek ez zuten helegitea tramitera onartu, lehen fasean, hauteskunde emaitzak Hauteskunde Batzordean ez zirela inpugnatu argudiatuta.

Helegitea jarri izanak eraginda, Udaleko kargu hartzea uztailaren 2ra atzeratu zen. Ezohiko egoerak eraginda, kazetari ugari inguratu ziren, herritar askok babestu zuten Udal gobernuaren osaketara. Azkenean, ofizialki lau zinegotzirekin osatu zen Udala: Joxe Manuel Oria (alkatea), Itxaro Alustiza, Haritz Iztueta eta Andoni Alustiza. PPko ordezkaria ez zen azaldu eta Joxe Mari Telleriak ezin izan zuen ofizialki, zegokion kargua hartu.

Elena Mendizabal

Kultur etxea eta Errementari urteko berrikuntza nagusiak

Etorkizun hurbilean nahiz epe luzera, Zeraintzat garrantzia berezia duten bi berrikuntza egin dira urte honetan. Edo hobeto esanda, berrikuntza bat egin eta bestea egiteko bidean jarri da: kultur etxean egokitze eta eraberritze lanak egin dira eta Errementari Udalak erosi du eta eraberritzeko proiektua martxan da.

Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen *Erein* programaren diru-laguntza bati esker, kultur etxean hainbat berrikuntza eta egokitze lan egin ahal izan dira. Lehen areto bat baino gehiagotan (liburutegia, diaporama gela, traste gela...) zegoen espazioa ireki egin da eta kristalezko itxiturekin funtzionalitate askoko gunea bihurtu da. Egurraren presentzia mantenduz, kristalarekin ukitu moderno eman zaio eta espazio berean eginkizun gehiagotarako gunea egokitu da. Horrez gain, ezintasun fisikoak dituztenentzat ere egokitu da eskaileretan jasogailu bat jarrita.

Bestalde, Errementari erosi du Udalak aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Landa Gipuzkoa* 32



programako diru-laguntzari esker. Etxearen jabearekin eta maizterrearekin akordio batera iritsi ostean, urrian onartu zuen Diputazioak erosketa eta eraberritzea egiteko 312.000 euroko laguntza. 2011ko uztailan Etorlurren bitartez proiektua aurkezteko ideien lehiaketa antolatu zen. Asmoa zera da:

Errementari eta Serorategi elkarrekin herriko zerbitzu nagusien erabilera anitzeko gunea bihurtzea. Erosketa honekin, dudarik gabe, herriaren etorkizuna markatuko duen proiektu garrantzitsu honetan lehen urrats ikaragarria eman da.

Maria Jexux Mendizabal



Kurtso oparoa aurtengoa ere!

Kaixo! Eskola bukatu da, jupiii! oporrak!

Gurasoak urtero bezala hilean behin Maixunen elkartu dira, zenbat lan! Aurten guraso berriak ditugu gure artean; mutiloarrak dira, zergatik etorri ote dira Zeraina?

18 aita-amez edo ama-aitez osaturik dago elkarte. Eta Maixuneko leiho txirristutik begiratuta jakin dugu, hainbat koordinazio-gunetan parte hartzen dutela ordezkari desberdinen bidez: herriko kultur etxean, Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakundean, Goierriko Eskola Txikien Koordinazio gunean... Aurten gainera, elkarteko arduretan aldaketak egin dituzte:

Lehendakaria: Itxasoren aitatz (Xabi). Lehendakari-ordea: Ekiren amatxo (Enara). Idazkaria: Aizpearen amatxo (Aloña). Diruzaina: Uxueren amatxo (Amaia J.). Jangela arduradunak: Harrieten amatxo eta aitatz (Rebeka eta Andoitz). Kulturako ordezkaria: Nora eta Eneritzen amatxo (Amaia E.). Zaintza arduradunak: Nora, Eneritz eta Harrieten amatxok (Amaia E. eta Rebeka).

Guk eskolatik ekartzen ditugun bezala, etxeko lan pila bat ekartzen dute eta lan horiei esker, ekintza dibertigarri eta interesgarriak egin ditugu:

ZERAINGO FESTAK: Rokodromoa, puzgarria, jolasak, play-back-a... bazkari goxo-goxoa, ederki pasatu dugu denok elkarrekin. Amatek esan dit, guraso eta kultur etxeak prestatu dutela festa polit hau.

BARTZELONAKO BIDAIA: Bideko geldialdietan jarri genuen giro aparta dantza eta trikitiaz, Tibidaboko beldurrezko hotelean erabat izututa, gurasoak korrika irten ziren eta gu bitartean autotxoketan... PortAventura, Camp Nou, Zientzia Museoa, hiriburua ezagutzen (metroa, autobusa, tranbia, funikularra), Ramblak, Sagrada Familia... Eta lotokian a ze juerga!!!

GAMUSINOEN BILA: Porrotx gure



Mutiloarrak gure artean: Oihan eta Ekain, aita Gotzon eta ama Evarekin.

Zergatik etorri zarete Zeraingo eskola txikira eta ez Segurako eskolara?

Gotzon eta Eva: Mutiloan nahi genuen eskola txikia eta eskola txikien berri jaso genuen iturri ezberdinetatik eta horien artean Zeraingo gurasoena. Hainbeste gustatu zitzaigun eskola txikien metodo eta lema, Mutiloan ez genuenez lortu, Zeraina ekarri ditugula.

Ze balorazio egiten dezute lehen kurtsoa pasatu eta gero?

Gotzon eta Eva: Oso ona eta aipatu beharrekoa, eskolako haurrekin egin duten loturaz gain, herriko beste haurrekin egin den harreman berezia. Eta guzti hau behar beharrezkoa dugu, lasaitasuna, lana etab. egiteko aukera ematen digulako.

Ze iruditzen zaizu Basarte Guraso Elkarte?

Gotzon: Ekintza asko antolatzen ditugu, **Eva:** Ez pilo bat. Eta gainera gure beharrak osatzeko zerbitzuak dituzte eta adibidez eskertzekoa da zaintza zerbitzua.

lagunak bisita berezi bat egin zигun eta Gamuxinoen bila ibili ginen zartagi eta linternekin. Ea noiz zatozen berriz Porrotx!

KULTUR ASTEA: Marrazki polit politak egin ditugu, eta saridunak, denok!!!

TALO ETA GAZTINA JANA: Aurten izugarritzko gatzina pila bildu genuen Zeraingo minatan eta talo goxo-goxoak egiten erakutsi ziguten, Joxepa, Ines eta Mari Karmenek.

TXOTXONGILOAK: Urtetik urteera, emankizun politagoak ikusten ditugu Tolosako txotxongiloetan eta erakusketa ere polita izaten da.

OLENTZEROREN ETXEA: Gabon aurretik Bizkaiko Olentzeroren etxea ikustera joan ginen, eta Olentzeroz

gain euskal mitologiako pertsonaiak ezagutu genituen; Galtzagorriak, Tartalo, Lamiak, Sugar, Mari Domingi... Ondoren bapo bazkaldu genuen.

GABON KANTAK ondo abestu arren, eguraldia ez zen gurekin lagun izan, baina bai herritarrek. Herritarrek emandako diruari esker pozik jarriko dira gure San Dieguitoko lagunak, baita Saharakoak ere.

OLENTZERO: Aurten ere etorri zaigu Olentzero Maixunera zakua opari potoloz beteta.

DANTZA: Urte berriarekin, dantzan hasi ginen Andrea gure irakaslearekin.

ARKUME JANA: Udaberrian, gurasoak Uxueren etxera joan ziren eta



Mungiako Izenaduba basoan dagoen Olentzeroren etxera egindako bisitan.

Ortziren etxeko arkumeak, Unaien sagardotegiko sagardoa... etab. jan omen zituzten eta gu bitartean Maixunen, herriko gazteekin jolasean ibili ginen.

KORRIKA: Ari-ari gu ere izan ginen Euskalakari.

GOIERRIKO ESKOLA TXIKIEN FESTAN ere izan ginen, aurten Gabirin, pintxoak egin, pailazok ikusi eta lekukoa Itsasondori pasa hurrengo urterako.

KURTZO AMAIERAKO ASTEBURU PASA: Zuberoara irteera egin dugu; Holtzarteko zubia, Kakuetak harroilak, Santa Engrazi herriko egonaldia...

GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN FESTA: Abaltzisketa herria ere ezagutu dugu festa horren aitzakian.

UDAKO DENBORA LIBREA: Uda aprobetxatzeko, gazte eta haur jolasean, eskulanetan, playback-ean, korrika, saltoka etab.

Ekintza eta irteera hauez gain, aurten martxan jarri dugu eskola ordutegiz kanpoko **zaintza zerbitzua**. Azken urteetan zerbitzu honen falta sumatzen genuen, herrian hezkuntzaren inguruko sarea osatzeko; Haurtzaindegia, Eskola, Jangela eta orain Zaintza.

Zaintza zerbitzuan, 4 haur daude eguneroko erabileran (goizeko 7.30etatik 9etara eta arratsalde 4.30etatik 6etara) eta tarteka beste haurren bat ere izaten da.

Zaintzaile bezala herritar bat jartzea pentsatu zen. Horretarako deialdia egin zen herrian eta aurkeztutako en artean egin zen aukeraketa, horrela herritar batek lana izan zezan. Zerbitzua aurrera ateratzeko, guraso elkarte guztiok, lagundu dugu ekonomikoki eta antolaketan.

Orain arte, zerbitzu honekiko balorazioa oso positiboa da. Hurrengo kurtsoari begira gainera, aurtengoz gain, bi erabiltzaile

gehiago izango ditugu.

Eta noiz irteera eta ekintza gehiago? Mendi irteera, Bartzelona, talo jana...

Bai lasai, hurrengo kurtsoan ere izango dira hainbat ekintza eta irteera. Eta hoietaz gain, Ekolapiko proiektua izango dugu gurekin; eta eskolan geroz eta haur gehiago, **geroz eta eskola txiki handiagoa!!!**

Basarte guraso elkarte

Nola zen "zaintza" zure haurtzaroan Zerainen?

Garai hartan, aitak lan egiten zuen eta ama etxean zegoenez ("etxeko" lanak egiten), ez zegoen halako zerbitzu baten beharrik. Harrez gero, gauzak asko aldatu dira, guraso biek etxetik kanpo lan egiten dutenez beharrezko gertatzen da zerbitzu hau.

Ze balorazio egiten dezu lehen kurtsoa pasatu eta gero?

Balorazio oso ona, ume kopuru aldetik eta gurasoentzat beharrezkoa izan delako. Gainera honekin aukera eman zaie erabiltzaile diren gurasoei lana eta familia uztartzeko.

Ze etorkizun ikusten diozu zerbitzu berri honi?



Oihan, Nora, Itsaso eta Eneritz Nekanerekin.

Ama bezela, geroz eta beharrezkoagoa ikusten dut eta zaintzaile bezela herrian bidean ditugun haur eta guraso guztientzat aukera berri bat. Beraz herriarentzat eta bizi ditugun garaie egokitu.

Lasurtegi hezegune eremua. Lasurtegiko zingirak

*Asier Galdes **

Aizkorri-Aratz Parke Naturalak Zerainen dituen sailen aldamenean, Larraondoko Zerrategitik abiatu eta Lasurtegi errekan gora, Basaltegi aldera, Zerainek badu altxor bat: **Lasurtegiko Zingirak edo Lasurtegi Hezegune Eremua**.



Lasurtegiko iztingea dagoen gunearen argazkia, txabola txikiaren ondotik aterata.

Joan den maiatzaren 31n, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Inbentarioa eraberrituta argitaratu zuen. Zeraingo Udalak egindako eskaerari erantzunez, Lasurtegi inguruko Hezegunea bertan sartu da. Oraingo hau, garrantzi handiko izendapena da gure herriarentzat, izan ere, hezegune hauek balio natural handia dute eta gisa honetako eremuak nahiko urriak dira gure inguruetan.

ZERAINEN IZTINGEA

Hezegune hauek gure inguruan *iztingea* (istinga) bezala ezagutzen dira. Urak hartutako sailak izaten dira, lur azalean ura geruza txikian edo urez asetutako buztin bigunezko lur eremuak. Lehorrean (aintzira, zingira, putzua, ur-ustela, padura, zohikaztegia), zein itsas bazterrean (itsas padura, albuferak, bokalea) ura erruz izaten den tokietan berez sortu ohi dira eta beti edo noiz behinka urez aseta egoten dira.

Hezeguneak, ura eta lehorrean artekoak izaki, natur eremu aberatsak

eta ekosistema oso berezi eta konplexuak dira. Landare nahiz animalia ezberdin asko bertan berez hazi eta bizi da, eta honek, bertako biodibertsitatearen balioa handia dela adierazten du. Batetik, urperatutako lekuetan bizi diren landareak dituzte, bestetik, iztinga eta zingiretan bizi ohi direnak (liken, goroldio, ihi, eta abar) eta hauen inguruan, erreka bazterretako landaredia (haltzak adibidez). Hezeguneetan sortutako habitat aldakorak hornogabe, anfibio

**Paisajista*

zein narrasti espeziarentzat oso eremu aproposak dira.

ZERAINGO LASURTEGI HEZEGUNE EREMUA

Zeraingo Lasurtegi Hezeguneko bihotza, bi iztingak osatzen dute: Olaiztinga inguruak eta Basaltegi iturria eta Lasurtegi Erreka inguruko zabalgunak. Olaiztinga, Aizpeako Meategiko Ingelesen Trenbidearen amaieran (Basaltegi aldean) dago. Basaltegi eta Lasurtegiko zabalgunea berriz, Larraondoko Zerrategitik aurreraxeago, bertan dago.

Aizpeako Meategiko mendeetako mineral ustiapenak hezegune hauen sorreran eragina izango zuen seguruenik. Mea atera asmoz inguru hauetako lur-zorua eta orografia guztiz aldatuta eta zulatuta dago, eta urak bide berriak hartu eta sortu ditu, batez ere lehengo mendeen. Esate baterako, Aizpeako meategia zulatutako gazta baten antzekoa da, galeria multzo izugarri batez osatua. Zulo hauetan barrena ura hara-hona dabil eta nonahi azaleratzen da. Muñogain Haitza, Danbortxiki, Prailleaitz, Elurtzain, Eolatzako Motea eta Larrantxo mendi tontorrek inguratzen dute hezegunea. Hauen azpiko Amiizaal, Mandabide, Apostolatza, Larranzabal, Basaltegi



Zeraingo toponimia mapan kokatuta Lasurtegiko hezegunea.

eta Pagosasi bezalako inguruko sailtako lur gaineko urak eta han-hemen azaleratzen diren Zuztarriturri, Basaltegi eta Markesiturrieta bezalako iturri eta zulo ugarietatik sortzen den urak hornitzen du Lasurtegiko hezegunea. Hala, ura etengabe pilatzearen

eraginez, bertan landare espezie interesgarriak biltzen dira.

Hezegune honetan habitat mota desberdin ugari dago, hala nola, lezkadia, belardi-ihidia eta haltzadia. Habitat hauetako bakoitzean makina bat landare eta animalia interesgarri bizi da. Aipatzekoak dira, adibidez,



Zerain nekazaritzari lotuta bizi izan den herria da. Etxekizamerko produktua ZERAIN PARKE KULTURALA da.

Zerain Parke Kulturala

HERRI MUSEOA. Herriko bizimodu eta ohiturak
1711.KO KARTZELA.

LARRAONDOKO ZERRATEGIA. Uraren indarra XIX. M.
AIZPEAKO MEATEGIAK. Burdinaren ustiapenaren garapen

MANDIOA DENDA. Herriko produktuak eta artisautza
HARIZTIERDI ATERPETXEA.

www.zerain.com

Zeraingo turismo bulegoa
Herriko plaza, z/g.
20214 ZERAIN
Tel. 943 80 15 05
Faxa 943 80 16 06
turismobulegoa@zerain.com

Gipuzkoa barnealdean lehen aldiz aurkitu den iraurbelarra, *Schoenus nigricans* espeziea, edota Gipuzkoan bertan bigarren aldiz Lasurtegiko hezegune honetan topatu den *Eriophorum latifolium* (urtegietako kotoia) landareak. Erkidegoan interes berezia duten beste hainbat ere izendatu dira eta Penintsula eta Europa mailan babestutakoak ere bai: txantxiku arrunta (*Alytes obstetricans*) eta uhandre palmatua (*Lissotriton helveticus*) besteak beste

GURE KULTURAN

Gizakiok gure ingurunea ustiatu eta lantzeko dugun joera lagun, bazter guztietako iztingak etengabe lehortzeko joera izan dugu. Izan ere iztinga inguruetan ez baita ez belardi goxorik, ez arbolarik, ezta sororik ere etortzen; pilatzen den ura atera ezkerro eta lurrazala lehortuz gero berriez, oso lur aberatsak dira.

Zeraingo Lasurtegi inguruan nahiz espezie oso interesgarriak topatu, hezegunearen gaur egungo egoera ez da batere osasuntsua. Gure ohitura kulturalak jarraituz ahal izan den eremu guztia lehortu eta landu da, iztingak ahalik eta gehien baztertu eta mugatuz.

Esate baterako, hezegunearen zati handi batean pinudia landatua dago eta lur heze honek pinudia hazteko sortzen duen eragozpena dela eta, ur-uneak drainatzeko lanak egin dira. Honek habitat berezi honen biziraupena eragozten du eta bide batez hain baliotsua den biodibertsitatea eskastu.

ETORKIZUNeko AUKERA

Zeraingo lurrek izan duten izendapen berri honen baitan, hauek berreskuratu eta babestea ezinbestekoa da bertako natura balioa eta biodibertsitatea iraunarazteko. Honetarako lehenik azterketa sakon bat burutu beharko da, inguru guztia tentu handiz ezagutzeko. Ondoren berreskurapen lanei ekinez Lasurtegi eremua eraberritzen saiatu beharko ginateke naturari berea den ingurune aparta hau eskainiz. Aldi berean Zeraina urtean zehar iristen diren ikastetxe ugaritako milaka haur ikasleentzako Lasurtegiko Hezegunea ezagutzeko ikasgai bat,



Hezegunea dagoen ingurunea alemanen trenbidetik ikusita.



Eriophorum latifolium, urtegietako kotoia.

unitate didaktiko bat sortu asmo da. Era berean eremu hau erakusgarri jarriko dugu bertaratzen den guztiarentzako, honetarako euskarri eta panelak ipiniz. Lan hauek burutzeko Hezegunearen babes izendapena egin duen Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitateko sailak diruz lagunduko du.

Herrian dugun aberastasuna ezagutu eta honela hobeto zaintzeko aukera ederra dugu. Zeuk, ezagutzen al duzu Lasurtegiko Hezegunea?



Schoenus nigricans, iraurbelarra.



Antsostegiko familia 1923an.



Antsostegiko Antonina 1930ean.



Kotxikiko Feliziana Aizpeolea hiru bilobekin 1937an.



Basazabalgo familia 1945 inguruan.



Txistulariak jauregi aurrean 1969an.



Zeraingo bi artzain Urbian 1950ean.



Ganbaratxoko Maria Elena Alustizaren ezkontza egunean bere lagunak 1964an plazan.



Joxe Zufiaurreren eta Dorotea Goyaren (Joxetxo Zufiaurreren) ezkontza egunean 1964an.



Erromeria Barbari auzoan 1950 inguruan.



Eskolako umeak Maria Teresa Centeno irakaslearekin 1950 inguruan.



Monika eta Benardo Artxeok ezkontza egunean 1952an.

2009. urtean, Oa Kulturako herritar talde bat etxe biltzen aritu zen. Guztira 100 ditugu zeraindarrok. Auzoak digitalizatu eta Udako Urtekari honen orrialde horietako batzuk azaltzen



h gurasoak) ezkontza 1934an.



Olabideko Pastor eta Dolores, eta Etxeaundiko Benardo, Damiana eta Mariatxo, Etxetxo aurrean 1950ean.



Juan Arrondo, Martxeli Agirre, Pilar Arrondo eta Martin Etxaluze. 1955.



Julian Muñoa eta Miren Gerrikoren ezkontza egunean elizan 1964an.

ur Elkarteak sustatuta,
z etxe argazki zaharrak
mila argazkitik gora utzi
Argazki horiek guztiak
o artxiboan gorde dira.
nauetan, jasotako argazki
n dira.



Aristizabalgo eta Eskortako familiak 1961ean.



Txointxikineko Juan Lekuona eta Aizperrotako Maritxu Etxaluze 1958an.



Sebastian Mujika (Idiazabal), Inazio Alustiza Ganbaratxokoa eta Joakin Arakama Aranekoa 1955ean.



Etxeaundiko Joxemari Etxaluze eta Erreoneko Milagros Aizpeolea 1955 inguruan.



Araneko Joakin Arakama motorrean.



Sagastibilgo senideak: Joan Mari eta Arantxa zutik eta Pako eta Txomin makurtuta, Arantxaren jaunartzean. 1958



Eskortako Gregori eta seme Jabier, eta Txoistegiko Joxe eta ama Joxepa, 1951n mutikoen jaunartzeetan.

Maria Apaolazaren kartak

Elizabete Garmendia

Ezusteko polita izan nuen, orain dela gutxi, izeba Mila -Milagros Lasa Apaolaza- bisitatzera joan nintzenean: ondo horitutako paper batzuk erakutsi zizkidan, urtetan gordetakoak.

Cerain a 13 de Agosto de 1916

Estimada amiga

Me alegrare mucho que la presente te halles bien y o bien a Dios gracias.

Erecebitu nuan zure cartea, niq eztet contestazeco denboriq yzan oan artean barcatu areatiq

fiestaq dira emen yf onen amabostean etori sinfalta.

Zeu ezin baldin bayquezu bialdu ayzpa eta Gregori gure ychean mutil asco yzaten die

aurten fiesta aundiaq ditugu musicarequin ordunche nobio coscorbana topatu bearditugu...

Papera puskatuta dago bukaeran, eta, beraz, ez da sinadurarik ageri, baina Maria Apaolaza Aizpeolea Kozmendikoak idatzia izan behar du, berak sinatutako beste gutun batean ageri den idazkera bera baitu. Gutuna Jacinta Arreguiri zuzendua da, Arantzazuko Ospederiara. Motiboa garbi dago: festetarako gonbidapena; gainera, ez nolanahikoa -konpromisozkoa-, gogo beror egindakoa baizik. Eta nobedadea, urte hartan -1916an- musika izango zela festetan; aurrerago, idazleak errepikatu egiten du musikarena:

...Cerayñen beñere ezta Musicariq yzan aurten aprobechatu bear degu danon artean...

Arantzazutik Zeraina nola etorri? Mendiz, noski:

...zenec bidea eracutsia yzango dezue urbico artzayec besteric ezpada eracusico dizue niq irtengo dizuet bidea...

Musika zein motatakoa izango zen ez dago argi, baina bi urte lehenagoko gutun batean *Gabirico dunchiña jolea* ageri da. Gutuna Juana Josefa Apaolazak Maria ahizpari idatzi zion Zeraindik, 1914ko irailaren 25ean. Nora bidali zuen ez du jartzen, baina, seguru asko, neskame egongo zen Maria nonbait, Teresa izeneko beste lagun batekin. Nolanahi ere, gutun horretan honela aipatzen du Juana Josefak musika jotzailea:



Maria eta Juana Josefa Apaolaza ahizpak.

...Olabidera billera jarri due len esaten zuen becela Gabirico dunchiña jolea etortzen zaje...

Sei gutun dira guztira, 1913 eta 1919 artekoak. Bi, Mariak idatziak: bata, aipatutako Jacintari; eta bestea, Rafaela Aranburu delako bati. Beste laurak, Mariak jasotakoak: horietatik bi, ahizpa Juana Josefak idatzi zizkionak; beste bat, Francisca Soralucek, Astigarretatik; laugarrena, Martin Jose Lizarazuk, San Jeronimotik (nongo San Jeronimo ote?; Martin Josek ere Astigarretakoa behar zuen izan, eta Apaolazatarren lehengusua, esaten dituen kontuengatik).

Gutun guztietan, festak dira hizpide nagusia. Francisca Soralucek, esate baterako, Astigarretako festetarako gonbita egiten dio Mariari, amaren partetik:

...San Gregorioko fiestac badatoz eta maya serbituaz fiestac pasazera etorceco...

Eta beste enkargu bat ere ematen dio:

...Musugorri esayozu Justac esan duala

Lerain a 27 de Enero 1913
Maria etxepalata
Nire haitza orain noa
bi garen al dian zuvi
is erio tiera ondo gara
guztiak dese atzen det
zuak ala izatean
Peru
ordain txinga ti ongo an
chan da onetan escribi
ti gabe egun bat tu
tan is peran egon nait
lana is det erri bi ta
u au lo daco abiso a ga
ti opra y llanen lu
bi rico egune an is con
du tan du to lo ran sta
este ban sta Jose etentio

ijllean gustora dago tiera
atera juateco ya onco no
tiziac etbial du danac
ni as per tu nait iscri
bi tren gau can ama
nac dira ta lo gaba dan
cat su sa oitico zina
ten esnai y bil tren ete
escribi tu nait denu nean
esu nu nac ba luti nac
Clementina inaxia tomas
maria da nan par teti
particular toheco fami
an par teti adios adios
mariata tiera laguna
zuak escribi tu arte
Juana Josefa Etxepalata

Aurkitutako eskutizetatik ateratako bi zati. Eskuz idatzita eta euskara eta gaztelania uztartuz.

*bagoicara bat melocotoy pote ecari duala
nay duanian jatera etorreceo...*

Festak nagusi, baina tartean bada lan konturik ere;
adibidez, Juana Josefak Mariari esaten dion hau:

*...gu beti becela lanac ezin moldatuta baña
beaje bat garo ecarri degu Alzaniti...*

Garai hartan, ohikoa zen nonbait garoa ekartzea
udazkenean Altzaniatik, ukuiluko azpitarako; sasoi
jakinean egiten omen zen lan hura, ez norberak nahi
zuenean.

Lagunarteko kontuak ematen dituztenean, zenbait izen
azaltzen zaizkigu: Clementina, Inazia, Tomasa, Maria,
Modesta, Balentiña... Eta horien berri atera ahal izan
dugu zerbait.

Clementina eta Ignazia ahizpak ziren, Tellaetxeokak,
Arrizabalaga abizenez; Clementina, gerora, Olabideko
Guillermo Mujikarekin ezkonduko zen; Inazia, berriz,
Tellaetxan bertara ezkondu, eta gaur egun hango nagusi
den Carlosen ama zen.

Tomasa, Kozmendikoa, Apaolazatarren Etxekonekoa
zen, Berasategi Arrizabalaga abizenez, Benantzio zenaren
arreba nagusia; Irunera ezkondu zen, eta haren semea
Angel Goienetxea da. Maria, aurrekoaren ahizpa,
Segurako Mantxotegira ezkondua. Modesta ere
Etxekonekoa zen, ezkongabea, Tomasa, Maria, Benantzio

eta horien guztien izeba.

Balentiña, Aroztegi abizenez, Aldasoron jaiotakoa eta
Ganbaratxora ezkonduko zena.

Horiek denak gertuko lagunak izango ziren;
adinkideak, gutxi edo gehiago. Juana Josefa 1886an jaioa
zen; Maria, 1895ean; eta aipatutakoen artean zaharrena,
Modesta, 1862an.

Kronikan, ordea, azaltzen dira beste pertsonaia batzuk
ere inguruan; adibidez:

*Mutiloco Ycheberrikco loteria irten zizaion
mutil ura adisquide aundi eguin due*

Eta, nola ez, amerikano bat ere ageri da, Tellaetxeok
Clementina eta Ignaziaren osaba izango omen zena:

*Tellecheco americanoa bere familiaquin
badijoa laster datoren ylean gustora dago
Teresa atzera juateco*

Kontua da Juana Josefak Mariari bidalitako gutunetan
inguruko gertaeren berri ematen diola. Hola, ezkontza bat
aipatzen du, Fermin eta Concharen artekoa, Tolosan:
Fermin Berasategi, Etxekoneko aitonaaren anaia,
Benantzio eta horien osaba, eta emaztea, berriz, Concha
Abad; Segurako Etxetxora ezkondu ziren, eta haien bi
semek Ameriketarako bidea hartu zuten. Jaiotza baten
berri ere badakar Juana Josefak 1913ko urtarrilaren 27ko



Maria, Jose Antonio eta Juana Josefa Apaolaza senideak.

gutunean, modu honetara:

*Acho alaba eguin du Bizentak illaren
ogueita seian ondo dago*

Bizenta, Aizpeolea, Zabalegi Azpikora ezkondua; alaba, Juliana Balerdi Aizpeolea, gazterik hila.

Ikusten denez, auzoko jendearen gorabeherak dituzte hizpide; aipatu, bi baserri hauek aipatzen dituzte: Olabide eta Tellaetxe. Urrutixego joanda, Olaberri azaltzen da, San Bartolometako festei lotuta, eta, hortaz, Zegamako Olaberri auzoa izango da.

Hizkuntzari dagokionez, gaztelaniaz idatzita dago sei gutunetan idazpurua, tokia eta data zehazten dituen; hortik aurrera, izatekotan, hasierako edo bukaerako formuletan bakarrik ageri da erdara: Estimada amiga, recibe los afectos que te profesa... Kontakizuna, berriz, euskaraz egiten dute erabat; nolabaiteko ortografia, puntuazio eta hitz ebakerekin izanda ere, esan beharrekoak ondo adierazten dituzte.

Gauean idazten zuten:

...amarrac dira ta lo galea daucat... (Juana Josefak Mariari)

...ya loguretu nayz amabiaz dira... (Mariak Jacintari)

Kozmendin ba ote zuten argindarrik ordurako? Armaolatik eraman omen zen hara argindarra, baina ez dakigu urte haietarako eginda ote zegoen instalazioa. Hortaz, baliteke kandela argitan idaztea.

Despedidan ez dute ez besarkadarik ez musurik bidaltzen, bakar-bakarrik escumuñac; horiek bai, ugariak, joan-etorrikoak, ezker eta eskuin partitzeakoak. Eta bukatzeko, ia beti, a Dios edo adios jartzen dute; batzuetan, errepikatuta: adios adios.

*(Argibideak: Iñaki Berasategi Kozmendi)



ETXAIDE
ERAIKUNTZAK, S.A.

Araba Etorbidea, 5.blokea
Tel: 943 65 31 86

TOLOSA

PATXI SAEZ DE EGILAZ: BATZARKIDEA

Jon Etxeberria

Azken hauteskundeen emaitzak zeharo aldatu dute Euskal Herriko mapa politikoa. Legealdi honetan eta azken momentuan ezker abertzalea izan du aukera aurkezteko egoera ofizialean, herritar guztien pentsaera errespetatuz urte askotan ilegalizazioaren hankapean egon ondoren. Bilduk izandako arrakasta edo "tsunamiaren" olatua gure herrira ere iritsi da zuzenean. Gipuzkoako batzarkide izango da Patxi Saez de Egilaz

Murgiondo Zeraindarra. Aurrekoan ere izan genuen beste bat baina Madrileko "bedeinkazioarekin" ilegaltzat jo zuten. Ea egoera berri honetan onurak ekartzen dizkigun gure herri txiki honetara. Beasaindarra jaiotzez baina zeraindarra bizitzaz eta bihotzez duela 13 urtetik. Berak dionez bada esatera bat hau ondo azaltzen duena: "el burro no es de donde nace, sino de donde pace".

Bizitza osoa ikasten?

Eta horrela jarraituko dut, bizitza ikasketa bat da. Magisteritza bukatu ondoren irakaskuntzan hasi nintzen, Zaragozan eta Gasteizen eta aldi berean Geologia ikasten. Leioan, Geologia ikasten, Amaia ezagutu nuen edo hobeto esateko berak ezagutu ninduen ni. Amaiak lehenengo bi urteetan ez niola kasurik egin beti esaten du, baina hirugarrenean hasi ginen bikote moduan eta uda honetan betetzen ditugu 21 urte elkarrekin. Urte haietan alokaturiko pisu batean bizi nintzen Gasteizen, gero Amaia, ingelera ikastera, urte bat joan zen Eskoziara eta bueltatzerakoan "Ingurugiroaren Gestioa eta Teknologia Unibertsitate-Masterra" egin genuen Gasteizen. Ia-ia ingurugiro kontsultaria bat muntatuta geneukan eta Donostiako ikastetxe batetik "bup eta ubi"-n irakasteko deitu zidaten eta bertan 14 urte egin nituen. Bitartean nire ikasketak beste arlotan, humanistikoan, hasi nituen: "Zientzia, Teknologia eta Gizartea Unibertsitate - Berezilaria" postgradua; Filosofian hasi nintzen baina ez zidan asko betetzen eta handik Antropologiara pasa nintzen, hori bai, zoragarria izan zen, beste



kulturak, tribuak, baina ez aintzinakoak bakarrik, gaurko tribuak ere aztertzea eta ezagutzea. Ikusten duzu zein garrantzitsuak diren gauza batzuk pertsona batzuentzat eta ez besteentzako. Gure gizarte eta harremanetan asko ikusten eta ikasten da antropologia.

Egun doktoretza egiten ari naiz, lehenengo zatia (DEA) zaborrari buruz egin dut, Madrileren "atez ate" sistema defendatzeko joan nintzen eta orain tesia falta zait, baina ez dakit egingo dudana. Orain Iruñean eta Gasteizen nago irakasle moduan lan egiten.

Zure bizitza ez dira bakarrik ikasketak, beste zaletasunak badituzu, ezta?

Ikaragarri gustatzen zaizkit kirolak eta bidaiak. Gaur egun egoera hau ematen ez den arren, kirol asko egin izan dut. Futbolzale handia izan naiz, bai jolasten bai ikusten, Atotxako partidu horiek madrilen kontra, Del bosque, Juanito,...mundialak izan ziren. Ziklismoan "Marinista" izan naiz, Marino Lejarreta eredu bat izan zen, irabazi gutxi baina kasta handia, umila, pertsona zintzoa. Eta batez ere mendizalea, beti asteburua itxaroten. Lehenengo gure

mendiak, batez ere Aizkorri (ez naiz oso aralarrekoa) eta gero Pirineotara, eta oporretan Alpetara, Atlasera...

Bidaia tzea asko gustatzen zait, Amaiak eta biok C-15 hartu genuen eta Europa osoa zeharkatu genuen: Irlandatik Cabo-nortera, estatu baltiarretatik esloveniara... Gero "burua finkatu" genuen, beste norabide bat eman genion bizitzari eta gaurko bidaia desberdinak dira hiru alabekin. Baina bidai hori buruan daukagu erretirorako, norabide gabe beste kulturak ezagutzeko; ea alabek betetzen diguten "visa" txartela.

Zergatik etorri zineten

Zerainera?

Kasualitatez, bizitzan momentu garrantzitsuenetako batzuk kasualitatez gertatzen dira. Amaiak Mungian egin zuen lana eta nik Donostian. Bioi herri txikiak, lasaitasuna, gustatzen zitzaizkigun. Baserri bat berritzeko hartzea zen lehenengo asmoa, baina ezinezkoa izan zitzaigunez, orduan egunkarian lurzoru baten bila iragarki bat jarri genuen; eta horrela hasi ginen egiten gure etxea; gero Irati, Aroa eta Uxue etorri ziren Hauek bai, gure eraikin garrantzitsuenak dira.

Baina zure lanbidea ez dago lotuta eraikuntzarekin, ezta?

Ez, nire bizitza osoa hezkuntza da, 27 urte daramatzat, haur hezkuntza ezik maila guztietan, Zientzia arloetan (matematika eta natur zientzietan batez ere). Orduan, zergatik orain politikan? Kasualitatez, euskal herriko egoerak eskatzen zuelako. Egun 40000 pertsona ilegalizatuta daude eta ez diete uzten bere burua aurkeztzen hautagai bezala "demokraziari esker", "alderdi legea"-ri esker. Bilduk jendea behar zuen eta oraingo honetan ezin nien ezetz esan. Egoera normal batean horiek dira titularrak eta ez ni.

Herrian entzuten da Zeraingo



Amaiarekin Patagoniako glaziar batean.

lehenengo batzarkidea izan zarela.

Hori ez da egia, orain dela lau urte, 2007an, Arantza Ruiz de Larrinaga ANV-ko hautagai zen eta ilegalizazioaren bidez kanpoan geratu zen. Gogoratu urte hartan ezker abertzaleko bi zerrenda zeudela: OAS (oriako abertzale sozialistak) non "titularrak" zeuden eta ANV. Biak geratu ziren ilegalizatutak. Ez balira gelditu ilegalizatuak, Arantza batzarkide izango litzateke.

Orain Gipuzkoa Bilduren eskuan dago, nola ikusten duzu hori?

Normaltasunez, Bildu gai da Gipuzkoa gobernatzeko, eta gainera ilusioz. Egoera berria dator euskal herrira eta lan hori denon artean egin behar dugu, alderdi guztien artean. Jendea gogoz dago. Nik egun gutxi daramat Batzar Nagusian, baina Bilduren helburua denon artean adostasuna bilatzea da. PNV-k onartu egin behar du Bilduk irabazi duela eta jendeak aldaketa nahi duela.

Bost alderdi Batzar Nagusietan daude, egin balorazio txiki bat

-Bildu: Koalizio bat da. Tsunami bat da eta ez dakigu non dagoen muga. Hainbeste ilegalizazio eta hainbeste urteren ondoren,

jendea gogoz zegoen eta, nahiz eta desberdinak izan gauza batzuetan, besteek bezela elkartasuna bilatzen du. Bilduren helburu nagusienetarikoa bat prozesu demokratikoan sartzea da, horretarako partaidetza eta ateak zabalik utziko ditu. Independentista eta ezkertiarra da eta benetako independentzia eskatuko du. Aldarrikatzen ditu erabakitze eskubidea, subiranotasun osoa, pertsona guztien eskubideak, berdintasunezko gizarte justuago bat lortzeko; eta hori gizarteak ematen digun legitimitatearekin bakarrik. Batzarretan prest dago beste alderdiekin gauzak adosteko Gipuzkoa aurrera eramateko, eta badakigu haiek baloratzen dutena, nahiz eta jende aurrean ez esan.

- PNV: Beheraka doa. Niretzako PNV "ERE-n" dago, orain dela bi urte Gasteizko gobernutik kanpo geratu zen (lanpostu pilo bat galdu zituen) eta orain Gipuzkoan gobernu gabe (Foru aldundietan eta udaletxeetan) geratu da. Hori boteredun alderdi batentzat oso gogorra da, eta nire ustez onartu egin behar du eta kalera jeitsi behar da estrategia aldatzeko; jauntxoan estrategia utzi behar du benetako euskal herria eraikitzeko beharrezkoa da eta. Junteetan pixkat zomorroak dira.



Patxi alaba Uxuerekin eta Porrotx pailazoarekin, Eskola Txikien Festan.

-PSOE: Beheraka doa. Madrilen estrategia jarraitu du eta Euskal herrian beraien artean kriston bronka daukate. Begira Nafarroan, zergatik ez zuen nahi ezkertiar gobernu bat egin?, estrategia edo "frente espainola" egiteagatik, eta gauza bera gertatzen da Gasteizko gobernuan; non ikusten da "ezkertiar" eta eskuinekoak elkartzea? Euskal herrian bai, elkartzen dira espainiar proiektu bat martxan jartzeko eta gero estatuan "a la greska". Junteetan oso haserre daude PNV-rekin. Bihurtuko ote da PSOE baskista?

-PP: Beheraka doa hau ere. Bere estrategia espainiarra da. Bakarrik konfrontazioa nahi du, argazkian ateratzea. Begira zer gertatu zen bizkarzainekin, inoiz ez dira sartu udaletxetan, ezta juntetan ere, baina beraiek bronka nahi dute. Sakanan ez dituzte hartu beraien zinegotziak (parakaidistak dira), zergatik? Ezer egiterik ez dutenez ezta medioetan agertu ere, ez zaie interesatzen, hori mespretxu hutsa da beraien hautesleentzako.

-Aralar: niretzako "uvi-n" dago,

baseak eta alderdiko agintariak oso urruti daude. Zer esan, haiek jakingo dute zergatik jendeak ez dion eman botoa bere kandidaturari; niretzako jendeak originala nahi du eta ez fotokopia bat.

Eta hemendik aurrera?

Bilduk sentsibilitate guztiak elkartu nahi ditu. Bilduk bere helburu nagusia oso garbi dauka, helburu hori euskal herria independente, ezkertiar, solidarioa, berdintsua izatea da, eta horretarako denok gara beharrezkoak, denon lana da; hemendik urte batera hauteskunde espainiarretara euskal herria bezala nahi dugu joan, eta hemendik bi urtera Gasteizko gobernuaren oldarra: Arnaldo eta besteak (titularrak) ateratzen badira bere bahiketatik Arnaldo lehendakari izango litzateke.

Zerain begiratzuz, nola ikusten duzu politika Zerainen?

Ez egin tira mingainetik. Beno, 13 urte daramagu Amaia eta biok Zerainen, hauteskunde batzuk ia

ikusi ditugu Zerainen eta zerbait berritu behar da politikan. Desagertu egin behar dira esaldi batzuk: "zuek ez dakizue...", beti egin da horrela, beti izan da horrela,...". Nik badakit dena ez dakidala, baliteke ikasle ona ez izatea, baina prest nago ikasteko, begira, oraindik ere ikasten ari naiz. Antropologia puntutik beti galdera bat etortzen zait burura, ea zergatik herri txikietan familia batzuk baztertuak dauden. Azkenean denok gara berdina, ezta? Saia gaitezen sentsibilitate guztiak jartzen, adibidez mutiloan kanpotar batzuk daude udaletxean. Badago erderazko esaldi bat: Son todos los que están, pero no están todos los que son. Lehen hitz egin dugu lehenengo batzarkideari buruz eta noizko lehenengo alkate emakumea Zerainen? Etorkizuna emakumeena da.

Zer deritzozu auzolana eta partaidetza sistemari buruz Zerainen?

Zeraina etorri ginenean, sistema honi itxura ona hartu genion eta eredugarria zela iruditu



Patxi hiru alabekin: Irati, Aroa eta Uxue.

zitzaigun, gure lagun eta lankideekin hitz egiten genuen honi buruz. Baina urteak pasatu ahala, eta barrutik ikusita, hobetzeko puntuak badituela ohartu gara. Herri bilerak gidatuak dira, informatiboak erabat, eta erabakiak aurretik hartuta daude. Herri kandidaturako botoa emateko sistema pertsona bat boto bat izango litzateke egokiagoa, baina hori iritzi pertsonala da.

Bukatzeko, zerbait gehitu nahi?

Niri egin didazue elkarrizketa, baina badaude herrian beste pertsona batzuk Zeraingo herriaren izena munduan zehar zabaltzen dutenak, gogoan dut Bartolo, ETBko hainbat serie eta pelikuletan agertzen dena, edo Luisa eta Gregoriok, astero, zeraingo produktuak saltzen dituzte azoketan, ...e do... edozeinek bere lana egitean.

GALDETEGI PERTSONALA

Zaletasuna: Natura eta bidaiak

Kolore bat: kolore guztiak. Ostadarraren koloreak.

Herrialde bat: Euskal herriaz aparte Islandia edo Norvegia.

Hiri bat: Dudarik gabe Donostia.

Kirolari bat: Jeannie Longo (emakumea) eta Reinhold Messner (gizona)

Musika: Enya eta Erramun martikorena

Pelikula: Braveheart, oso ondo egon da erretratatuta euskalerriko gizartea bertan.

Aktorea: Julia Roberts eta Jackie Chan.

Edaria: Dudarik gabe Ura. Gure gorputzean % 70 da.

Pertsona bat: nire gurasoak.

Janaria: Babarrunak

Liburu bat: Marc Legasseren "Las carabinas de Gastibeltza".

Amets bat: Euskal herria independentea.



ARANBURU HARATEGIA

bertako haragi, txorixo eta
odolkietan adituak

Kale Nagusia, 34. SEGURA

Tel.: 943 80 10 14

Minatako garraioak

Jesetro Zufiaurre

Agiriek diotenez, 1500. urterako Zerain eta Mutiloako burdin minatatik mea ateratzen bazuten, burdinoletara eramane ahal izateko garraioaren nolabaiteko antolamendua eginga izan beharko zutela zalantzarik ez dago.

1925. urtean Serapio Mujika jaunak idatzi zuen artikulua batean, gai honi buruz zerbait aitatzene du eta, bertan oinarrituz, ikus dezagun antolamendu honen berri.

Mea bezeroei eramateko, lehenbiziko gurdi txikitane menditik errepideraino jaitsi, eta gero handiagok ziren gurdi bolantetan garraiatzen zuten. Itzain askorentzako lana zen.

Zeraingo Zierdi-patza parajeko minatatik mea asko ateratzen zuten, eta bere bezero garrantzitsuenak berriz Segura, Olaberria, Beasain, Tolosa eta Azpeitiko burdinolak zituzten. Eta XIX. mende erditik aurrera Beasaingo C.A.F. lantegia ere bai.

Beraz, gurdi txiki haiek meaz bete eta mendiane behera malkar-bidetane, Ormaiztegi eta Gabiria arteane dagon errepidera abiatzen ziren.

Behera ordurako, mea gutxituta iristen zen, gurdien mugimenduak galarazitakoa gabe.

Itzaitegi baserriaren ondora iristen ziren bere zama hustu ahal izateko. Han itxaroten baitzuten itzainek, mea bere gurdi handi edo gurdi bolantetara pasatzeko. Hortik datorkio baserriari bere izena, itzainen tokia zelako.

Bigarren itzain hauek ziren mea zeharroletara eramaten zutenak.

Bilboko sozietate batek Frantziara bidali behar zuten mea kopurua zela eta, trenbide estu bat prestatu zuten



Gabiriko Itzaitegi baserria.

minatetik Ormaiztegiko geltokiraino, Lierniko ermitaren ondotik zihoalarik.

Gero geltokiaren ondoan labeak eraiki zituen, eta lehenbiziko guda mundialeane, egunero, meaz betetako hogei bagoi bidaltzen omen zituen Frantziara.

Horrenbesteko urtetane mendiari mea kenduaz, azkeneane agortu egin zen eta, XX. mendeko lehen laurdenaren bukaerarako, minak itxi eta tren estua kendu egin zuten.

Aizpeko minatan berriz, Ormaiztegiko tren-geltokira mea eramateko, burdinazko tantaiane bidez kablea jarri zuten, labetan meaz betetako balde handi batzuk bertane zintzilika joatene zirelarik. Alemaniarrane omen ziren. Hauek XX. mendeko bosgarrene hamarkadane kendu zituzten.



Zeraingo elizako gurutzea

Erdi Aroko pieza. Gipuzkoako zaharrenetakoa. XIII. mendea

*Edorta Kortadi**

Zeraingo Andramari Zeruratzearen elizan dagoen Kristo gurutziltzatuaren irudia -prozesiorako metalezko pieza- Gipuzkoako erlijio-obra zaharrenetako bat da. Garai horretako pieza gutxi ezagutzen ditugu. Antzeko beste gurutze bat Zegaman dago, Aizkorriko ermitatik jaitsitakoa, eta horiez gain, seguruenik biak baino zaharragoa den Erdi Aroko plaka bat badago Donostiako Elizbarrutiko Museoan. Pieza hauek egurrezko kirten batean sartu eta liturgiako ospakizunetan erabiltzen ziren batetik, eta lurra, soroak eta animaliak bedeinkatzeko bestetik. Kobrearekin nahastuta egindako metalezko piezak dira, seguruenik Euskal Herriko burdinoletan egindakoak monasterio handietako ereduak jarraituz, edo bestela, peregrinazio bideen bitartez, Frantziako Tolosa, Limoges edo Leyre bezalako gune garrantzitsuetatik ekarritakoak. Izan ere, gurutze hauek egun falta dituzten esmalteak monasterio horietan egiten ziren garai hartan.

Zeraingo Kristoren irudia txikia da, baita gurutzearen tamainarekin konparatuta ere. Itxuraz nahiko zakarra eta zurruna da, eta hainbat konbentzionalismo anatomiko jarraitzen ditu. Erret koroa dauka buruan, eta gerrian oihaltzati bat zuzen eta alde batera izurtuta. Ikuslearen aurrez aurre dago gorputza, bularraldea eta sabelaldea ondo markatuta ditu, burua eskuin aldera okertuta dauka eta aurpegia oso sereno ageri da; eta erret koroarekin koroatuta dago Kristo erromanikoen estilora. Kristok ez du sufritzen, baizik eta gurutzean dauka erregetza, enperadore bizantinoen gisara. Besoak ordea, diagonalean dauzka Kristo gotikoen estilora. Lau iltze dauzka, nahiz eta hankak gurutzatuta eduki. Gurutzearen gainean marrazki batzuk ageri dira eta oraindik han daude garai batean kabujoiak (harribitxiak eta esmalteak) kokatzeko zituen zulotxoak. Harribitxi horiek itxura dotorea eta balio handia ematen zieten mota honetako piezei. Gurutzearen hiru besoetan bost kabujoi zeuden, eta bi buruaren gainekoan. Lau besoetan muturretan lirio loreen formako hirustak ageri dira, eta hori jada estilo gotikoaren ezaugarria da. Horregatik dio seguruenik Maria Asunción Arrazolak, Gipuzkoan ez daukagula Kristo erromanikorik, baizik eta trantsizio garaiko Kristoak ditugula: erromanikoaren hainbat ezaugarri mantentzen dituztenak, baina gotikoaren beste hainbat sartzen ere hasten direnak. Hori kontuan hartuta, Zeraingo gurutze hau 1250 eta 1300 urteen ingurukoa dela esan dezakegu; hau da XII. mendearen amaiera aldekoa edo XIII. mendearen hasiera aldekoa. Beraz, 700 urte baino gehiago ditu.

Argi dago beraz antzinako pieza dela, eta hain zuzen



Zeraingo elizan dago zazpi mende pasa dituen gurutzea.

ere horregatik ondo gordeta eta kontserbatuta egon behar du. Balio ekonomikoa baino askoz garrantzitsuagoa da duen balio historiko-artistikoa. Izan ere, agerian uzten du merkataritza ibilbideak, Santiagorako peregrinazio bideak eta Euskal Herrira kristautasuna ekarri zuten bideak Frantzia eta Hispanian barrena joaten zirela eta Segura, Zerain, Zegama, San Adrian eta Arabatik pasatzen zirela alde batetik, eta bestetik, Nafarroa aldetik zetozenak ere Gipuzkoako lurretan sartzen zirela Arantzazutik eta Legazpitik pasata.

Horrela bada, pieza honen balio historiko-erlijiosoa (batez ere) oso handia da. Erakusten du XII-XIII. menderako, Zerain bezalako poblazio guneetan -seguruenik etxe edo baserri gutxi eta sakabanatuz, eta ermita edo elizaz osatua- bazegoela nahiko kristau fede eta nahiko gaitasun ekonomiko, erlijiozko artearen horrelako pieza bat eskuratu ahal izateko.

Zeraindar eta gipuzkoar guztioi beraz, pieza hauek ondo gordetzea, gurtzea eta hurrengo belaunaldiei transmititzea dagokigu, gure Herriaren Ondare baliotsua baitira.

*Arte kritikoa eta arte sakroan aditua

Aiertzako Santa Barbara kaolin minak

Joxe Mari Etxaluze

A izpeako eta Barbari mendiko burdin minari buruz asko idatzi da aspaldi hontan. Udaletxean ere askoz datu gehiago dago Aiertzako Kaolin minari buruz baino, eta horrek nolabait nahigabea sortu arazten dit. Horregatik Kaolin mina, minen anai pobrea bezela edo behiaren bostgarren txahala bezela pixkabat baztertuta sentitzen dudalako, azken aldian Etxeaundiko terrenoetan zegoelako, azkeneko bertako langilea izan nintzalako, umetatik behi zai ondora joan eta mina hortako langilei begira ordu asko ta asko pasatu nituelako, eta abar luze bategatik, bera aztertzea erabaki det. Txarrena da oso lekukotasun gutxi dagoela eta udaletxean ere oso datu gutxi dago. Neuk dakidan eta hortik eta hemendik bildutako apur horrekin baliatu behar.

Lehenago esan det azkeneko bertako langilea izan nintzela eta halaxe da, kaolin minako azkeneko langileak Joxe Mugika "Legorburu", Joxe Arakama "Arane" eta Joxe Mari Etxaluze izan ginen. Guk utzi genionean behin betiko itxi zan Aiertzako Kaolin mina, atzekoz aurrera gauzak egiten ezin hasiko nahiz eta hori nere lan honen bukaera aztertuko det hobeto.

Dakiguna da 1.920 ingurutik Gregorio Goia izan zala bertako nagusia eta berak ustiatu zuela mina hori,

inguruko gazte eta sasoiko gizon asko zebilen bertan lanean: Aizpea bailartik, Antonio Telleria "Goikoetxe", Lukas Arteaga "Garro", Tomas Telleria "Xierdi", Joxe Berasategi "Tellerine", Joxe Inaxio Telleria "Legorburu", Andres Arrondo "Eskorta" (harri batek azpian hartu eta bertan hila), Felix Mendizabal "Muño", Joakin Gerriko "Bengoetxe", Juan Telleria "Urrutikoetxe", Joxe Imaz "Ola", Jose Mari Alustiza "Sagastibil", Joxe Lezeta "Itxitxo", Matias Goia (Gregorioren semea), Lorentxo Murgiondo "Mutilo", Benito Muñoa "Segura" eta abar luze bat. Izen hauek denak eta beste datu asko Gregori Telleriari zor dizkiogu. Bere anaia Antoniori, bazkaria ekartzera etortzen omen zan neska koxkorra zala Aizpe Goikoetxetik. Orduan berak bazekien garai artako Aiertzako Kaolin minako berri. Lastima lekukotasun bakarra daukagula bera.

Berak esanda jakin nuen Aiertzako mina hortan gertatuko istripu latz baten berri eta gutxi gora behera ze urtetan gertatu zan. Gerra altxatu baino bastante lehenago izan zala esan zidan berak. Eskortako Andres Arrondo harri batek azpian hartu eta nola hil zan, bide horri jarraituz Udaletxean defuntzioko aktak aztertzen hasi eta berehala jakin genduen, Andresen heriotzaren berri.



ARAKAMA
barne diseinua

Hiribarren, 24 Tel. 943 888 717 - 652 775 955 a.arakama@euskalnet.net
20210 - LAZKAO - Gipuzkoa



Artegitik Aizpera doan bidearen alboan dago kaolina ateratzeko egindako tunelaren sarrera.

1.930eko uztailaren 17an, goizeko bederatzieta 23 urtekin hil zan, eta soltero zegoela. Hori dena defuntzioko aktak esaten digu.

Hori dena Gregorio Goiak mina hori ustiatzen zuen garaian gertatu zen. Kaolin minerala era askotara ateratzen zan; zeru irekian, galerietatik eta goitik behera potzu bertikal bat zulatuaz. Kaolin beta on samar bat bilatu ezker hari segika egiten ziran ahaleginak. Oso mina arriskutsua zan Kaolina. Oso material biguna da eta inguruko lurra ere oso flojoa izaten du. Galerian eta potzuan lan egitea oso arriskutsua gertatu ohi da askotan. Hain lur flojoan mendiari eustea asko kostatzen da. Zutikakoak, kabezalak eta peatxoak ondo eta ugari jarri behar dira eta hala ere beti ez da samurra izaten mendiari nahi den moduan eustea.

Kaolina minan atera eta bagoneta batean, errailetan eramaten zan eta hormigoiz egindako aska handi batera botatzen zen. Han eje bat ibiltzen zan bueltak emanez. Eje horrek hamar bat pala zeuzkan alde banatara jarrita. Batidora aska hori urez beteta egoten zan eta horrek dena nahastu egiten zuen eta Kaolina urarekin nahastuta beste deposito batzuetara juaten zan. Karolina ura baino astunagoa danez, potzu hoietan dena zoruan pilatzen zan. Hau asentatzen zenean depositoari ura jaregin eta kendu egiten zitzaion, eta errekarra botatzen zan. Zoruan gelditzen zan kaolina lokatza batidora batekin nahastu eta ura bonba batekin presa batera xurgatu egiten zuen eta prentsa hortan, 10 bat kiloko talo batzuk irtetzen ziran. Plantxa desmontatu eta banan banan denak atera eta pala ireki batzuetan jartzen ziran lehortzen, eta lehortzen ziranean, astoz, mandoz edo idiz eta gurdiz, Zeraina ekartzen zan. Hortik kamioiez Alegi, Amezketa, Tolosa, Billabona, eta abarretako papeleretara eramaten zuten.

Kaolina papeleretan papeleri nahasteko erabiltzen zutela esaten zuten garai hartan. Guk horrerainokoa ikusten genduen. Hortik aurrerako dena esandakoa entzun eta kito.

Ahaztu baino lehen esan dezadan Aiertzako minan matxakak (Batidorak) nahastuta Kaolina kendu ondoren gelditzen zan hondarra, harri koskorak eta zaborra, dena ataka bat ireki eta errekarra botatzen zan. Eskerrak honek ez zuela errekarik erretzen, eta kangreju, ezkailu, aingira eta abar berdin bizitzen zirala.

Aiertzako Kaolin minak horrela jarraitu zuen 1.936ra arte. Ez zan nobedade partikularrik izan. Dakidana da ez zuela negoziak askorik ematen. Datu honen berri Karnele Goñik eman zidan bere amona Doroteari entzunda. Dorotea hau Gregorio Goiaren arreba zan, Iñurrategiko alaba. Dorotea honek jarri omen zion dirua Gregoriori mina hori ustiatzeko. Baina sarritan anaiari errieta egiten omen zion zorra besterik ez ziola eragiten mina horrek eta hobe zuela dena bertan behera uztea esanez. Baina Gregoriok temati, edo huraxe gustatzen zitzaiolako, berean jarraitu zuen gora behera haundirik gabe, itxura batez behintzat, anai arreben eztabaida batzuek tarteko.

Gregoriok mina horren bidez herriko eta inguruko gazte askori ematen zien lana eta ogibidea. 1.935ean, errepublikaren azken aldera, mugimendu soziala zerbait indartzen hasi omen zenean, Gregorioren langile gazte hoiek gehinak U.G.T ezkerreko sindikato batean afiliatu omen ziren, bere seme Matias tarteko eta gauza horrek etzion grazi handirik egingo gure Gregoriori. Zozolistoak deitzen omen zien Gregoriok gazte hoiei. Sozialisten sindikatoa zalako izango zan.

Eta hortan jarraitu zuen minako martxak zarata handirik gabe, 1.936ko uztail zorigaitzoko hura arte. Orduan gerra altxatu zan eta akabo pakea. Gerran eskubia

indarra hartzen zihoan neurrian, gure mutiko ezkertiarrak, Gregorioren "Zozolisto" hoiek, bildurtzen hasi omen ziran eta gehienek Frankoren aldetik gerrara juatea erabaki omen zuten.

Beste bertsio hau ere jasoa dut Rosario Arantegik emanda. Don Serapiok eta inguruko kazike talde batek, mitina eta afari bat organizatu eta mutil talde hori eta beste batzuk gonbidatu zituztela informazioa eman aitzakian eta hau reklutatu zituztela Frandoren alderako.

Dena dela, Aiertzako minan lan egiten zuten gazte hoiek denak Frankoren aldetik ibili ziran gerra egiten, eta zoritxarrez bi mutil bertan erori ziran, bat Gregorioren semea Matias eta bestea Joxe Lezeta "Itxitxo" . Esan ditzadan zein ziran bestiak: Joxe Mari Alustiza "Sagastibil", Manuel Sanpedro "Arrondo", Benito Muñoa "Azpatza Txiki - Segura".

Orduan Mutil hoiek gerrara alde egin eta bertan

gelditu ziranak batetik bestera, erdi izkutuan eta minak ez zuen jarraipen handirik izango. Gerrak dena hankaz gora jarri zuen eta minak, baserriak, eta ziranak eta ez ziranak denak hala moduz ibili ziran urte haietan. Aiertzako mina ere beste ekintza askoren antzera bertan behera gelditu zen. Gainera ordurako Gregorio Goia 65 urte egina zegoen eta ez zan arritzekoa minako buruhaustek alde batera uzteko gogoia edukitzea. Azken urteak oso gizenduta eta baldartuta pasatu ondoren, 1.941ko Otsailaren 25ean hil zan 70 urte zituela. Goian bego.

Aiertzako Kaolin minak urte batzuk gelditu egin ondoren, berriro martxan jartzea erabaki zuten. Oraingoan nagusiak edo ugazabak Gillermo Lasa Irizar eta Joxe Lezeta Mugika izan ziran eta Kaolin minan esperientzia zeukan jende mordoska bat Billabona eta Amasa alde hortatik etorri zan. Xalbador izeneko bat etorri zan guztien buru. Beste bat Lorentzo zan eta gehiago ere baziren. Ni ez naiz denen izenekin orain akordutzen. Zerainean Marianen jarri ziran apopilo: Xalbador Legorburun, Antonio Mujikarenean, eta Lorentzok (bizi guztia bertan egin zuen 1.975 aldera hil zan arte).

Oraingo ekipo honek berrikuntza handia ekarri zion minari. Portea, asko kostatzen zan Kaolina asto, mando edo idiekin gurdiz Zeraina ekartzea eta Kaolina tuberia Mutiloara bialtzea erabaki zuten. Hortarako tuberia tiratu behar Aiartzatik Mutiloara (2 kilometro ta erdi egongo dira gutxi gora behera) eta hori gastu handia zan. Baina halaxe egin zuten, zanga dena pikatxoiz eta atxurrez ebaki zuten eta denean hormigoizko tuboa jarri zuten. Mutiloan Murgiarango soro barrenean montatu zuten fabrika, depositoak egin, sekadoreak, bonba eta prentsa, goian zeuzkatenak jatxi zituzten behera eta hala hasi ziren lanean prepezioz. Urte mordoska batean lan asko egin zuten. Nik ez dakit zenbaterainoko etekinak emango zituen baina, portetan asko aurreztu zuten. Batidorak lehen bezalaxe goian jarraitu zuen lanean, eta Kaolina likidoan tuberia bialtzen zuten Mutiloara.

Aizpeako erreka uraren aprobetxamentuko eskaria, Guillermo Lasa Irizarren eta Joxe Lezeta Mugikak 1944ko abuztuaren 23an daukate egina, Udaletxeko papeletan argitzen denez. Baimena edo erresoluzioa 1949ko maiatzaren 25ean dago emana. Eskerrak horren zai egon gabe lanean jarraitu zutela. Bestela ondo zeuden minari etekin handiak ateratzeko, orduan ere burokrazia. Burokrazia hori beti berdin.

Minak horrela jarraitu zuen 1951-1952 ingurura arte gutxi gora behera.

Folio 112 vuelto

ACTA DE DEFUNCIÓN

REGISTRO CIVIL DE Ceram

Número 44

DISTRITO DE Repetita

NOMBRE Y APELLIDOS

Andrés
Arroño
Vellera

De la villa de Ceram, provincia de Guipúzcoa, a las once horas y media del día trece de julio de mil novecientos treinta y siete, ante D. Juan de Barasalegui, Jefe municipal, y D. Clemente Barrio, Secretario, se procede a inscribir la defunción de D. Andrés Arroño Vellera, de 33 años de edad, natural de Ceram, provincia de Guipúzcoa, hijo de D. Juan José Arroño y D. Juana María Vellera, domiciliado en esta villa, de este valle, casado, de profesión Labrador, y de este valle.

falló en D. Juan de Barrio, Jefe municipal, el día trece de julio de mil novecientos treinta y siete, a las once horas y media, y concurriendo al acto D. Clemente Barrio, Jefe municipal, y D. Juan de Barasalegui, Jefe municipal, según resulta de la certificación de la celebración y reconocimiento practicado, y en cumplimiento de lo establecido en el artículo 10 de la Ley de 1901, se procedió a la inscripción de la defunción de D. Andrés Arroño Vellera, mayor de edad, casado, Labrador y vecino de este valle.

condicionándose además a:

habituado presenciado como testigo D. Juan de Barasalegui, y D. Clemente Barrio, mayores de edad y vecinos de este valle.

Se otorga el presente en la villa de Ceram, a las once horas y media del día trece de julio de mil novecientos treinta y siete, ante D. Juan de Barasalegui, Jefe municipal, y D. Clemente Barrio, Secretario, quienes firman y sellan con el del Juzgado y la firma el Sr. Jefe municipal, y el que certifica.

El Comisario de la Oficina de Registro Civil, Juan de Barasalegui

El Secretario, Clemente Barrio

Kaolin minetan hil zen Andres Arrondoren heriotza akta.

Baina poliki poliki, behera etorri zen. Ez dakit etekin faltaz, edo zer izango zen, mineralik errezenak atera ere bai, ordurako eta aspertu eta denetik izango zan agian.

Gillermo Lasak eta Joxe Lezetak mina ustiatzeari utzi egin zioten, Etsi ez zion bakarra Xalbador, mina hortako enkargatu, ingeniero, aparejadore eta denetik egiten zuena izan zen. Hau Billabonatarra zan. Honek Billabonan tabernari bat konbenzitu zuen diru puska bat mina hortan ibertitzeko eta gu hiru mutil gazte eraman gintuzten mina hortara lanera: Joxe Mugika "Legorburu", Joxe Arakama "Arane" eta Joxe Mari Etxaluze "Etxeaundi".

Hala hasi ginan lanean Xalbador horren esanetara. Kaolinarik samurrenak atereak zeuden. Oso Mendi azpira zegoen jo beharra zerbait itxuraz egiteko, eta horrek guk orduan gendukan baino preparazio eta eskarmentu hobea eskatzen zuen, baina horrela jarraitu genduen lanean hilabete batzuetan. Hilaren azkenean dirua Xalbadorrek ekartzen zigun eta ondo. Baina ez dakit dirua jartzen zuena aspertu edo zer gertatuko zan azkenean, hilaren azkenean dirurik etzan azaltzen eta gu ere dirurik gabe aspertu egin ginan lanean. Gainera, orduan fabriketatik lan eske handia zegoen. Aristrain orduantxe zegoen eraikitzen hasi berria, eta ni bertara joan nintzan lanera. Joxe Mugika eta Joxe Arakama, berriz, Patrizio Etxeberrira, Legazpira, joan ziran.

Baina azkeneko bi hiletako jornalak jaso gabe geunden eta diru hori hain errez galtzerik ez genduen



Egun botata dago errepide ondoan duela urte gutxi arte egon den Aiertza.

nahi. Joxe "Aranek" eta nik, Joxe Mari Etxeaundik, Billabonara joatea erabaki genduan, nagusiari zuzenean dirua eskatzera. Pentsatu eta egin. Jai goiz batean bizikletaz joan ginan Billabonara. Juanito Azpiroz, Bodegon tabernako nagusia zan. Tabernan sartu eta azaldu genion zer asmokin joan ginan eta oso ondo hartu gintuzten. Momentuan ez zeukala dirurik eta ordubiak aldera joateko esan zigun. Berak esan bezela joan ginan ordubiak aldera. Kontuak egin gintuzten eta gu pozik. Mahaian esertzeko esan zigun bazkaldu gabe ez ginala etorriko eta. Halaxe, bazkari bikaina eman zigun. Gurekin ondo portatu zen Juanito hori, eta gu pozik etorri ginan, diru mordoska poltsikoan hartuta. Horrelaxe bukatu ziran Aiertzako Kaolin minako kontuak. Mundu honetan gauza denak izaten dute beren hasiera eta amaiera.

ANAIK GARAJEA



MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA

Guardiko Industri-Poligonoa // Tfnoa.: 943 18 74 83 // IDIAZABAL

Arrolako haizeolak edo jentil-olak

Joxe Mari Etxaluze

Zeraingo minari buruz asko entzun izan det nere denboran, baita aztarna asko topatu ere. Nahiz eta begirada batean zer zapaltzen genduen eta zer ikusten genduen batere antzik eman ez. Baina bati eta besteari entzunda, eta Manuel Laborde jaunak egindako azterketa sakon bat irakurri ondoren, Zeraingo eta Legazpiko haizeolak nola aztertzen dituen ikusita, halako jakin min sakon bat sortu zitzaidan ahoz aho mantendutako historia edo tradizioan piska bat sakontzeko.

Manuel Labordek bere lan bikainean parte batean honako hau esaten du: "Zeraingo meatze gunean, eta inguruan zepa beltzak dituela, Mantxola baserria aztertuko dugu. Bere izena Masu-ola izenetik eratorria dela uste dugu, hau da, zeharrola".

Legazpiko Mantxola baserriari buruz ere berdina esan dezakegu, Zeraingotik lerro zuzenean nahiko gertu. Honen ondoan ere haizeoletako zepa beltz beirakara zatiak aurkitu ditzakegu".

Laborde jaunak honela jarraitzen du haizeolei buruz: "Garai haietako euskaldunek gauez inguruko mendi piriniar garaietara begiratzean izarren antzera su txikiak ikusten zituzten etengabe, burdina ekoizteko erabiltzen ziren haizeola edo labe txikiak sortuak. Baina azkenean itzali ziren su hauek, eta amaitu zen euskal meatzaritza eta siderurgiaren hastapen luze eta emankorra".

Bere lanaren jarraipenean Laborde jaunak aurrerako beste atal batetan honela esaten du: "Duela urte batzuk Zeraingo (galeria eta zepa beltz zahar ugariren hondarrak dauden lekua) gizonezko zahar batek bere aurrekoek mendi hoietan omen zeuden burdina urtzeko labeek "jentilola" edo "haizeola" deitzen zietela".

Karmelet Goñik esanda badakigu Laborde jaunari Arrolan jentilolak eta haizeolak izan zirela esan ziona Barbari Haundiko aitona izan zela, Pedro Aizpeolea. Karmelet bera Laborderi laguntzera joana omen zen egun hartan Barbari Haundira. Labordek bere lanean aurrera jarraituz honela esaten du: "Izen hauetako lehenak, jentilolak, oso antzinako kontua dela adierazten digu".

Honen ondoren aro hidraulikoa aztertzer pasatzen da.

Neri une honetan gehien ajola zaidana Arrolako mina horiei buruz zeraindarrok ahoz-ahoz gorde duguna jasotzea da, eta horretarako zaharrenak elkarriketatzea izan zen egin nuen lehendabiziko gauza. Zenbat aztarna ematen ote zidaten jakin minez galdeketa egin nien pertsonak hauek izan ziren: Rosario Arantegi (Barbari Arretxe, 93 urte), Maria Muñoa (Barbari Arretxe, 94 urte), Kandido Aizpeolea (Barbari Muño, 90 urte) eta

Antonio Guridi (Arakama Garakoa, Zegama, 90 urte).

Lehendabiziko hirurek ez zidaten gauza handirik esan Arrolako minari buruz, Barbari mendiko minari buruz eman zidaten argibide gehien. Hoiek beste lan batetan aztertzen saiatuko naiz.

Baina Antonio Guridik esan zidan berak Arrolako minak askoz ere zaharragoak zirela entzun izan zuela. Jentilolak zirela entzun izan zuela berak. Baina hizketan aurrera jarraituz berak Urrusti Garakoko Tomas Telleriari entzundakoa ere esan zidan, Arrolako minetatik Araiara gurdi galera edo gurdi balanteetan mendi bideetan zehar idiekin eramaten zutela. Tomasen hitzetan egiten zuten bidaia Arrolatik Urrusti Garakora, eta handik Ormakio, Oazurtze eta Aizkorrontotik Aldaolara omen zen. Handik, garai bateko haizeola izandako lekutik barrena, Aratz mendikatearen azpitik, Garozelai, Aratz, Leotaran goikotik, Miru haitz azpitik barrena, Allarteko balkoi aurretik Atabarretara. Han Aratz mendikatea zeharkatu, eta goitik behera zuzen Araiara. Karlos Ajuriak bertan zeukan fundizio edo galdategia. Garai bateko jentilolak,



Haizeolaren erreplika, pelikula batetik aterata.



2006an guraso elkarteak Arrolako jentilen sukaldea bisitatzen egindako ibilaldian parte hartu zutenetako batzuk.

haizeolak, masuolak eta zeharrolak baino pauso batzuk aurreratuagoa egongo zen behintzat Araiako Karlos Ajuriaren fundizio edo galdategi hura.

Aurrera aztertzen jarraituz, bata eta besteari galdezka, Arrola aztertu nahi nuen, eta Joxe Antonio Lekuonak bere guraso edo aitona Martini entzundako zerbait argitu zidan. Berak esan zidan Arrola inguru dena peatza edo zepa beltzez betea dagoela, han ez dagoela bi atxur kolpe jarraian ematerik zepa edo eskoria aurkitu gabe. Galeri koskorrak ere etxe atzetik harkaitz aldera nonahi aukeran daudela, minerala ateratzen jardun izanaren seinale.

Arrolako etxe atzean bada gainetik lehorpea duen harkaitz sakonune bat. Ahoz-ahoko tradizioan gizaldietan zehar iraun du honi ematen dioten izenak: jentilen sukaldea. Honi buruz galdetu nion Joxe Antoniori, baina berak inoiz ez omen zuen entzun jentilen sukaldea izen hori. Arrolan beti babesleku horri ahuntztegia esan omen zioten, ahuntzak babesean eta abarotan bertan sarritan egoten zirelako.

Pixka bat pentsatzen jarrita laister ohartu nintzen gizadiak eraman duen eboluzio edo aldaketaz. Garai batetan pertsonak bizilekutzat hartzen zutena gaur abereek hartzen dutela beraien babeslekutzat.

Hala elkarrizketan ari ginela jentilen sukalde horri buruz argibide asko eman ordez beste datu baliagarri bat eman zidan: Arrolatik Araiara gurdiz idiekin mineral karreoan jarduten zutenetako bat bere birraitona Joxe Antonio Berasategi zela.

Zerbait gehiago jakin nahian Joxe Zufiaurreri galdetu nion ea zerbait ba ote zekien Arrolako minari buruz, bere aitona Gregorio Goia Mendizabal Barbarimendiko minatan enkargatu egin baitzen urte askotan. Berak esan zidan bere birraitona Pantxiko Antonio Goia Alustiza

(1.836an jaioa eta 1.862an Oatza Goikoa baserriko alaba Eulalia Mendizabalekin ezkondua), idiekin Araiara mineral karreoan ibiltzen omen zela. Arrola Zaharreko Joxe Antoniorekin batera gehiago ere ibiliko ziren seguru asko, baina beste inoren aztarnarik ez dut hartu zoritxarrez.

Joxek esan zidanez bere aitonak Karlos Ajuriarekin hartueman sakona omen zuen, lagun minak omen ziren, eta hartueman horren lekuko Karlos Ajuriak beheko su aurreko txapa bat urtu omen zion Francisco de Goya izena grabatuta bere adiskidetasunaren ezaugarri. Gaur ere txapa hura gordeta omen dago Zerainen familiako norbaiten eskuetan.

Karmele Goñik ere antzeko gauzak kontatu zizkidan. Berak esan zidan bere amona Doroteari entzunda hiru egun eta hiru gau pasatzen zituztela Araiatik idiekin joan etorria egiten, baina beti lanean bakarrik zintzo ez ote ziren ibiltzen pentsamentuak edukitzen zituela bere amona Doroteak. Bere aita Frantzisko Antoniori buruz esaten zuen etxean behintzat ez zela diru sarrera askorik izaten, Frantzisko Antonioren emazteak lana gogotik egin behar izaten zuela errotari bezala eta baserriko lanetan familia aurrera aterako bazuen.

Handik urte batzutura, Arrolako minako mineralik samurrenak atera zituztenean, Barbarimendiko minak ustiatzen hasi zen Karlos Ajuria, edo bere ondorengoak, eta Gregorio Goia Mendizabal izan zen bertako enkargatu edo maisu. 1.920 inguruan mineralik samurrenak atera zituztelako edo errentagarria ez zelako mina hoi ustiapena bertan behera utzi zuten.

Baina mina horiei buruz beste lan batetan hitzegingo dut, bera bakarrik aztertzea merezi duelako. Arrolakoa eta Barbarimendikoa bi mina ezberdinak ziren eta ez



Manuel Labordek Caro Barojarekin batera grabatutako *Gipuzkoa* pelikularako egindako haizeolen erreplika.

ditzadan masifikatu denak batean hartuta.

Aurrena bukatu ditzadan Arrolako minako kontuak, eta ondoren zeharrola edo hidraulikoei buruz dakizkidanak eta Manuel Laborderen lan bikain eta sakonean irakurritako printza batzuk eskaini nahi nizkizueke.

Hemendik oso gertu presa hidraulikoen aztarna garbiak azaltzen dira adibidez, Arrabiolako ur saltoa, Armaolako presa eta Beasainen IgartzAko erroten dauden aztarnak lekuko.

Mirandaola Legazpin eta Agorrola Aian, erakusketa modura lan egiten duten bi zeharrola harri bitxiak gordetzen dira gure begien gozagarri eta euskaldunon nortasunaren ezaugarri. Jarrai dezatela urte askoan euskaldunon nortasuna munduari erakusten eta zabaltzen.

Laborde jaunak bere lan batetan esaten du zeharrola

edo burdinola gehienak errota bihurtu zirela burdinola izateari utzi ziotenean. Adibidez Segurako Arrabiola eta Armaola, Beasaingo Igartza errota ere lehen burdinola izan zen, eta Aiako Agorrolak bi errota zoragarri dauzka burdinola baino beheraxeago. Burdinolak erabiltzen zuen ur beraren indarra probestuz seguru gehiago ere izango direla Gipuzkoan nik ezagutzen ez ditudanak.

Arrolako jentilolak eta haizeolak aztertu nahian hasi eta Euskal Herriko jentilolak, haizeolak, zeharrolak eta masuolak nolabait aztertu edo nahaspilatu ditugu. Hala eta guztiz irakurlearentzat argi izpiren bat banatu baldin badut ni oso pozik gelditzen naiz egin dudanarekin. Beste lan batetan Barbarimendiko minak aztertzen jarraituko dut, hauek berrixeagoak izan arren bai baitute beren historia, zer aztertua eta zer kontatua.

Ordurarte.



OSTATU

JATETXEA

20214 ZERAIN
Tel.: 943 80 17 99

85-86ko bertsolari txapelketa

-1-

Bertsoen txapelketa
jarri dute aurren
esanaz libre zegok
naidunak irten
afizioan arra
xaxa eragiten
hargatik jungo ginan
hainbat astakirten
beti buru hausten
esaerak nasten
ez ginan iristen
ez badek sinisten
aproba egiteko
hasi abesten.

-2-

Antolatu ziguten
Aitzolen omenez
ezin aztu ginan
bere oroimenez
euskera ta bertsoak
maite zitun zinez
eta maitasun horrek
egin zion gainez
etsaiak irainez
hartu zuen lañez
Aitzol hila minez
martiri eginez
euskara etziguten
hil zorionez.

-3-

Txapelketa jarri zen
kantatzen hasteko
ahoz literatura
aberasteko
etzedila gertatu
bazterrak nasteko
nere iritziz izan da
batekoz besteko
ze degu azteko
zokoan uzteko
baizik abesteko
eta babesteko
munduari zer geran
erakusteko.

-4-

Txapelketa hau ez da
izandu frakaso
askok hala usteko
zuten akaso
batzuk etxen gelditu
dira goxo goxo
beste askok lanari
bildurrez eraso
jarri nerbioso

(Doinua: Betroiarena)

bihurtu paiaso
gogorra da oso
bizi nahi eroso
erein gabe ez leike
fruturik jaso.

-5-

Gogoz jardun ginaden
guztiko kantari
azken saiorako
zortzi bertsolari
danok ez gera berdin
lotutzen gaiari
hargatikan batzuek
lenago erori
Sebastian hiri
zorion ugari
eta besteari
bihotza opari
jarraitu aurrera ta
eutsi goiari.

-6-

Xenpelarren esan zun
guriak egindu
badegula gañetik
zenek agindu
gizarajoa etzun
horrek gutxi mindu
zer esango zuen gaur
ikusi bagindu
mintegiak landu
belar txarra kendu
landareak ondu
hazitzen lagundu
erein zendun haziak
frutu eman du.

-7-

Zuek zerate gazte
Euskal herrikoak
izar bihurturik
bertso sapaikoak
dizdirariak eta
brilu argikoak
hortarako eginak
gure jaungoikoak
lotu gerrikoak
bota neurrikoak
molde berrikoak
bali haundikoak
sobrantean daude
tonto lapikoak.

-8-

Gaztedia dagola
drogak eragina
nik ezin det sinistu
entzun det baña
Sarasua Euzkitze
Lizaso ta Egaña
Mendizabal Murua
Telleria Peña
zortziko bikaña
lerden ta liraña
dago alajaña
astindu mingaina
euskara indartu
egin alegiña.

-9-

Donostin hau pentsatzen
nuen nereka
gateok etzaitezte
danetik pasa
sartu politikan ta
maitatu jolasa
euskarari eskaini
behar dun babesa
herriak dun jasa
az dek aldrebesa
eginik promesa
ezin bizi lasa
zuek zerate
geroaren arnasa.

-10-

Euskal zeru sapaia
gaur zegok oskarbi
dizdirari ikusi
ditut izar bi
gaur hain doai bereziz
egin dute argi
euskara ta bertsoak
irudi zait garbi
hainbeste apaldi
ta euskal esaldi
nolaz euki geldi
mundura bidali
argi egiteko
gizaldiz gizaldi.

Joxe Mari Etxaluze

Katea ez da eten

Mikel Zalbide

Luisen kotxe berria *bataiatzen* izan gara, berrikitan, bertako lau lagun. Errioxako eta Soriako gainak lastindu ditugu, hogeitalau ordutz. Badago zer ikusia, batean zein bestean. Dinosaurioen hatz-arrastoak aurrez aurre ikusteko aukera izan dugu, batetik: 120 milioi urte inguruko arrastoak alajainkoa, plaka tektonikoen ibilera pausatu baina etenezinak gugana ekarriak. Harritzko torreei zaharrak ikusi ahal izan ditugu, bestetik: Kordobaren mendeko al-andalustarrek, gure arteko "kristau"en erasoetatik babesteko, Soria inguru horretan eraiki eta erabili ohi zituzten torreei zaharrak. Kanpotik ikusten saiatu gara haietako hainbat, eta barrutik bisitatu ahal izan dugu Noviercas-koa. Ikusgarria eta jakingarria, bai hatz-arrastoena eta bai mila urte pasatzeko eraikuntza horiena. Argazki-makinari ez genuen eraman, lastima. Eskerrak oraingo telefonoak ondo ekipaturik datozen. Guztia ez da, halere, kultura geologiko-historikoa izan: ardo-probatzeari eta afari-gosariak lagunarte-giro onean maneatzeari ere eman diegu bere lekua. Portatu da, orain ere, Ablitasko Ganbaratxo.

Guztirako denbora izan dugu: baita Alhama, Linares eta Cidacos ibar gainetako natura bizi jatorra mirestek ere. Hori baita egia: inon natura "bere hartan gorderik" baldin badago, ibargain horietan dago gorderik. Zaila da zinez, hemendik berrehun kilometroko jiran, hain leku garbi, inkontaminatu, gizakion teknologia moderno masiboaren eraginetik libre, dagoen bazter asko aurkitzea. Are zailago, jakina, aparteko ekosistema berezia osatzen duten milaka hektarea elkarren jarraian izatea, autobide lasterrek, hirigune zalapartariak, industrialde dinamikoak edo bestelako zibilizazio-arrasto nabarmenek ekosistema horren beregaintasuna nabarmen hautsi gabe. Harrigarria ere bada, berez, ekosistema intaktu horren iraupena: azken ehun urte inguruko transformazio ekonoteknikoek ia ezinezkoa bihurtu dute, gure artean behintzat, ekosistema horiek lurralde-esparru zabaletan eustea. Han, aldiz, begien bistakoa da oraindik iraupen-indar hori.

Egia da han ere aldatzen ari direla gauzak, eta ez gutxi: haize-errota erraldoiak ugaritzen ari dira, hasteko, mendigain askotan. Tramankulu horien inpaktu bakarra ez da bisuala, ikusmirazkoa. Antonioren esanean, animalietan ere antzematen hasia izango da dagoeneko berrikuntza horren eragina: uste izatekoa omen da, adibidez, hemendik aurrerako uso-pasa ez dela lehen bezalakoa izango. Era berean, gari-sail handietako uzta-biltzea arras teknologia modernoz egiten da eta, guk ikusi ez dugun arren egon hor egongo da lur-ongarritzatze industrial eta, agian, landare-hazi genetikoki "hobetu"en erabilera masiboa ere. Hori guztia erasaten ariko da,

gutxio-asko, orain puntura arteko ekosistema beregain. Ipuin xaharren garaia joan dira ordeka-gain horietan ere. Biziko badira merkatu globalean bideragarri diren produkzio- eta banaketa-sistemen arrastora bildu beharra daukate horiek ere. Egurretik, basozaintzatik, ehizetik eta turismotik bakarrik ezin dira bizi.

Hori eta gehiago egia izanik ere, ezin uka liteke termino konparatiboetan intaktu, inkontaminatu eta "garbi" ageri direla Soria aldeko ibargain eta ordeka zabal horiek. Hogeita batgarren mendera itzularazten gaituzte, berehala, haize-errota berriek, baina ingurumena garbi dago, oro har. Herriak eta herri-inguruak natura biziak inguraturik daude, ia etenik gabe: bideak berehala bukatzen dira eta mendia indar betez hasten da handik pauso batera. Errekastoak garbi datoz gu ibili garen leku gehienetan, eta labe garaien, planta kimikoen edo bestelako industrien ke handirik (suteren bat ez bada) ez da inon ageri. Bai, egiazko natura intaktua zer zatekeen antzemateko aukera paregabea eskaintzen digute, orain ere, Soriako eta Kameroetako goi-lautada eta mendi-hegal horiek.

Zer prezioetan gorde da, ordeka, horko altxor eder hori? Nola bizi izan dute bertako biztanleek harrigarritzko inkontaminazio akustiko, bisual eta kimikoa? Nola bizi izan dute hori, batez ere perspektiba demografikotik eta soziokulturaletik? Ez oso ondo. Galeran atera dira horretan, oro har. Herri gehienak hustu egin dira, partez edo osoz: Turruncun-en edo Valdecantos-en kasuak ez



Dinosaurioen hatz-arrastoak ikusten.

dira, zoritxarrez, bakarrek. Erabat hustu ez diren kasuetan ere, belaunez belauneko katea eten egin da edo eteteko arrisku handian dago. Atzo eguerdian ikusia, Castilruiz-etik eta Trévago-tik aurrera dagoen Magaña gaztelu-herrian: bertako taberna bakarrean, gu bezala kanpotik etorriak ziruditen hiruzpalau bisitari izan ezik, laguntalde bakarra. Gazteenak hirurogeita hamar urtetik gora izango zituen. Eguerdiko ordubiak ez ziren artean, eta kalean ez zen ume edo gazterik ia ageri. Izango dira halakoak Magañan ere, nola ez, baina gutxi. Adin-piramidea buruz behera daukate, itxura osoz: biztanle gutxi eta, apur horien artean, adin batetik gorakoak nagusi. Belaunez belauneko transmisioa, kasu honetan transmisio demografikoa, mehatxaturik dago ingurumen "intaktu" horretan. Galdera mingotsa datorkigu burura, hori ikusita: "intaktua" al da, benetan, jenderik gabe gelditzen den eskualdea?

Aurrera doa eguna, eta bazkaldu ere egin dugu. Baita Tourreko etaparen azken kilometroak ere ikusi, Arnedilloko tabernan. Buelta hartzeko ordua da. Bataio-lanak bukatu ditugu, beraz, eta hor gatoz herrira bueltan. Herri txikietatik abiatu, eta herri txikira gatoz. Mendia ate ondoan duen herrixkara, Soriako haietan bezala. Baina beste era batekoa. Lehendik ere bagenekien hori, baina Zubiberritik gora berehala konturatu gara. Afari-mokadua egin behar dugula esan du gutako norbaitek, eta gainerakook baietz: ondo hasi eta ondo buka, horrenbeste zor diogula txango laburrari. Herri-kaskora inguratu orduko, kontraste bizia antzeman dugu: hau ez da naturaleza inkontaminatua, ez behintzat Soriako hori bezain inkontaminatua, baina bai bizia. Horrek bereizten du Zerain, goiz partean ikusitako herri haietatik. Alde handia markatzen du herriaren berezko bizitasunak. Hemen ere badaude, uztail-ilunabar epel honetan,



Indarrak hartzeko, ardo botilaren laguntzaz tertulian.

kanpoko bisitariak, taberna bietan eta plaza inguruan. Herritarrek dira ordea nagusi. Herritarak oro har eta herritar gazteak, gure hurrengo belaunaldia, bereziki. Batzuek haur txikiekin daude, eta beste zenbait haur-esperoan. Katea, Zerainen, ez da eten. Hor dago aldea, alde nabarmena eta pozgarria. Kate hori eteteko arriskua izan zen hemen ere, orain dela berrogei urte inguru. Bestelako neurriak hartu ziren orduan, motibo bategatik baino gehiagotik seguruena. Bestelako ingurumen-baldintzak zirelako, batetik: oso ingurumen-baldintza diferenteak zituzten orduan (eta dituzte orain) Soriako ibargainek eta Goierriko Zerainek edo Zerain modukoek. Hori bakarrik ez zen izan ordea: bertako jendeak, gazte-jendeak bereziki, herria aurrera ateratzea erabaki zuen eta erabaki horrek bere fruituak eman ditu: katea ez da eten eta aurtengo Sanrokeak, eguraldia lagun, haurrez eta gaztez beterik izango ditugu plazan.



izal

IMAZ ETA CONTRERAS

PINTURA ETA PAPERGINTZA

Tel: 943 18 70 49 - 943 18 70 45

20213 IDIAZABAL

San Diegito, 10 urte

Arantza R. Larrinaga, Nicola Feroni

EL SALVADOR

El Salvador Erdialdeko Amerikako herrialderik txikiena da. Euskal Herriaren tamaina du 20.742 km. Zortzi miloi El Salvadortar daude orotara eta horietatik 2 miloi atzerrian bizi dira aukera hobeak lortzeko alde egin zutelako, gehienak Estatu Batuetara.

80.hamarkadan guda zibilaren ondorioz herritar asko hil ziren, 75.000 mila inguru, gehientsuenak militarren indarkeriaren ondorioz. Aski ezagunak dira Monseñor Romero artzapezpikuaren hilketa 1980an eta Ellakuria apaiz euskaldunaren eta beste bost apaiz jesuiten hilketa 1989an.

1992an azkenik Bake-akordioa sinatu zuten Gobernuak eta FMLN talde gerrillariak eta ordutik gaur egun arte, herrialdea berreraiki eta herritarrak adiskidetzeko ahaleginean dabilta.

SAN DIEGITOKO ETA ZERAINGO ESKOLAK 10 URTE ANAITUTA

2.000. urtean Zeraingo herri-eskola San Diegitoko eskolarekin anaitu zen. Bi eskolen arteko harremanarekin helburu bat baino gehiago lortzen saiatu gara urte hauetan guztietan:

- * Elkartasuna lantzea.
- * Haurrak munduko beste errealitateak ezagututa ikuspegia irekitzea, mundura zabaltzea.
- * Gure egoera pribilegiatutik egoera larrian bizi direnei laguntzea.
- * Elkarrengandik ikastea.
- *

Hamar urte hauetan urtero bidali dizkiogu elkarri gutunak, marrazkiak eta argazkiak... hemen eta han nola bizi garen/diren kontatu diogu elkarri, nola jolasten dugun, zer jaten dugun.... Horrenbeste gauza partekatu ditugu! Pozik gaude asko ikasi dugulako.

Gainera, urtero konpartitu dugu beraiekin Gabon eskean lortutako



San Diegitoko eskolako haurrak.

dirua, parterik handiena beraientzat eta bestea guretzat. Ekarpen horrekin lehen urtean eskolarako materiala erosi zuten, orduan eskola herrikoia zen eta ez zuen Hezkuntza Ministerioaren laguntzarik. Bigarren urtean, 2001ean bi lurrikara handi egon ziren El Salvadorren eta lurrikarek eskolan sortutako kalteak konpontzeko erabili zuten gure dirua. Urte batzuk beranduago Ministerioak adreiluz eta zementuz egindako eskola, gaur egun dutena, eraiki zuen eta ordaindutako irakasleak izendatu zituen. Ordutik beste gauza batzuetarako erabili izan dute, adibidez, hiriburuan dagoen zoologikora irteera egiteko, hurrei eskolako uniformeak egiteko oihala erosteko... 2010ean berriz, Hezkuntza Ministerioak El Salvadorreko haur guztiei 2 uniforme egiteko proiektua abian jarri du eta hori dela eta, azken urteko ekarpen ekonomikoa eskolako ordenagailu-gela sortzeko erabiliko dute. Horrela bertako haurrek teknologia berriak erabiltzen ikasi ahalko dute.

SAN DIEGITO

San Diegito El Salvadorko ekialdean, San Miguel izeneko probintziaren iparraldean kokatuta dago. San

Salvador hiriburutik oso urruti dago, urruti baino denbora asko behar da bertaraino iristeko, bost ordu inguru. San Diegitok tamainaz Zerainean antza du. Landa-eremuan kokatuta dago eta herritar gehienak nekazariak dira. Artoa, eta babarrunak ekoizten dituzte eta oiloak, behiak eta txerriak dituzte etxeko kontsumorako. Kaskoan etxe gutxi batzuk daude, beste guztiak inguruan sakabanatuta aurkitzen dira. Bideak oso egoera eskasean daude eta negu partean (maiatza -azaroa) bertara iristea zaila da eta oso ibilgailu gutxi iristen dira bertaraino. Zonalde aldapatsua da eta horrek sarbidea oraindik gehiago zailtzen du. Herrixkan sartzeko erreka bat dago eta euria egiten duenean asko hazten denez, zaila da benetan pasatzea. Askotan eskatu dute zubia egiteko baina Gobernuak ez omen du bere lehentasunen artean. San Diegito San Antonio El Mosco udalerraren menpe dago eta udalerrri hori El Salvadorko pobreenetako bat da.

ESKOLA

San Diegitoko eskola bertako herritarrek sortu zuten duela 16 urte. Ordura arte San Diegoko eskolara joan behar zuten oinez eta urruti



San Diegitoko eskolako haurrak dantzatzen, ongi-etorriko festan.

zegoelako txiki gehienak eskolatu gabe gelditzen ziren. Horregatik herritarrek komunitatean zeuden materialekin eskolatxo txiki bat egin zuten eta bertako 16 urteko gazte bat jarri zuten irakasle, Santos Porfirio izenekoa. Santos Porfiriok 16 urte darama eskolan irakasle eta gaur egun eskolako zuzendaria da. Berak aitortu zigunez lehen urteak izan ziren aberatsenak, nahiz eta zailtasun handienak ere orduan izan zituzten. Orduan lana muxutruk egiten zuten irakasleek baina pozgarria zen benetan ikustea herritarren antolaketak ematen zituen emaitzak,

pozgarria zen benetan haurrak eskolan ikustea.

Eskola urtez urte handitzen joan da, eskolak 6 gela ditu eta gaur egun 10 maila ematen dituzte bertan. Haur hezkuntza eta lehen, bigarren eta hirugarren zikloak. Hiru irakasle dihardute lanean goizez eta beste hiru arratsalde. Irakasleak falta dira. Guztira 200 ikasle inguru daude, San Diegitoko haur guztiak.

BISITA

2010eko irailaren 2an bost zeraindar (Nico, Aran, Ander, Izar eta Haizea) bisitan joan ginen San Diegitora.

Bidaia luzea izan zen, hiriburutik 3 ordura dagoen Segundo Montes komunitateraino joan ginen lehen etapan. Bertan lo egin genuen eta hurrengo goizean San Diegitora abiatu ginen traktzio bikoitza zuen ibilgailu batean. Perquin, San Fernando eta San Diegotik pasa ondoren, bi ordu beranduago San Diegitora iritsi ginen. Eskolan egin ziguten harrera hunkigarria izan zen benetan. Ikasle-taldeekin argazkiak atera genituen, irakasleekin hitz egin genuen eta eguerdian ekitaldi polit bat antolatu zuten: artoaren jaialdia. Ekitaldian goizeko eta arratsaldeko txandetan dabilzan ikasle guztiek parte hartu zuten beraien gurasoeekin batera. Musika, dantzak, esker-hitzak ez ziren faltatu aipatutako artoaren jaialdian. Guk agurra dantzatu genien eta eskolan prestatutako gutunak eta marrazkiak eman genizkien diruarekin batera. Bukatzeko artoa jan genuen modu askotara: elote loco delakoa, atola, reguak, tamalak...dena goxo-goxoa!

BIZIPENAK

- HAIZEA, 8 urte: eskolaren egitura berezia zen, luzexka, gelak alde batera eta bestera eta erdian pasilloa. Harritu ninduen euriarekin pasillo hori oso bustita ikustea, nahiz eta



OIHARTE

Nekazalturismoa eta sagardotegia

20214 ZERAIN

Maria Luisa Urrestarazu

Tel: 680 171 291

teilatua egon.

Guri jatekoa eskaini ziguten bertako gurasoek prestatutakoa baina ez dakit non prestatu zuten sukaldaririk ikusi ez nuelako.

Kanpoan euri zaparrada handia ari zuen, eta lokatza asko zegoen arren, jolas garaian kanpoan jolasten aritu ziren haurrak. Gu euria ari duenean zirimiru pixka batengatik aterpera sartzen gara.

Zuzendaria, Santos Porfirio, oso jatorra da eta dena azaldu zigun.

- IZAR, 11 urte: guk hemendik bidaltzen diegun dirua uste dugu beraiei oso ondo etorriko zaiela eskolarako materiala erosteko.. Badakizue, gauza askotarako, baina han egon eta gero, eta bertakoek esan zigutena entzunda, eskola nolakoa den ikusita eta egin ziguten harrera bizi izanda, benetan ulertzen da beraientzat diru hori garrantzitsua dela eta etekin handia ateratzen diotela, nahiz eta hemendik ez uste hainbesteko laguntza izan daitekeenik.

Gainera, oso atseginak iruditu zitzaizkidan bertakoak.

- ANDER, 14 urte: bertako gurasoek guregan erakutsitako konfiantza eta esker ona handiak izan ziren. Harrera



Haizea, Izar eta Ander ongi-etorriko festa ikusten. Atzean esker-kartela.

ezin hobea egin ziguten gu batere ezagutu gabe, beraien haurrei ikasteko aukera hobek eman dizkiegulako bakarrik. Oso jende jatorra ezagutu genuen, eskola xumea eta 200 ikasleentzat nahiko txikia iruditu zitzaidan. Sartu ahal izateko batzuk goizez ikasten dute eta besteek arratsaldean.

ETORKIZUNA

Zerain eta San Diegitoko eskolen arteko harremana mantentzea garrantzitsua eta aberasgarria da guztiontzat.

Beraiek gure laguntzarekin pozik daude ez direlako bakarrik sentitzen. Badakite, urrutira bada ere, beraien berri duen eta laguntzeko prest dagoen herri bat dagoela Euskal Herrian, Zerain.

6 ordenadorez hornitutako gela bat sortzea da San Diegitoko eskolaren erronka berria, bertan ikasten duten 200 ikasleek teknologia berriak erabiltzen ikasteko.

2009ko diruarekin dagoeneko ordenadore bat edo 2 erosiko zituzten. Beste lau lortzea falta zaie, lortuko ahal dute gure laguntzarekin!

Lirain

Lurrindegi, Kosmetika eta Erregaluak

San Inazio kalea, 14 - Tel. 943 88 93 90 - 20200 BEASAIN
Garagarza plaza, 1 - Tel. 943 80 53 27 - 20240 ORDIZIA
San Frantzisko pasealekua, 8 Tel. 943 65 02 39 - 20400 - TOLOSA

Errekorra Berlingo maratoian

Dena Mandion hasi zen. Eta ez! Ez zegoen hasiera hartan ez kronometrorik, ez pulsometrorik eta ezta barritarik ere. Zerbeza batzuen gain-energiarekin eta lagunarteko *haixek* piztutako txisparekin hasi zen kontua. "Maratoia egingo al diagu?" Eta trago bat garagar muztioari. "Egitekotan preparatu beharra zegok!" Eta beste trago bat. "Behin hasiz gero ezingo diagu ba Donostiako egin". "Iban atera beste lau kankarro". Basoak goraino beteta eta bat-batean batek: "Zergatik ez Berlin!"

2009ko urte amaiera zen. Zerbezaren bueltan sortutako ideia forma hartzen joan zen, ahoz aho, zerbezaz zerbeza eta afariz afari. Eta azkenean, sei herritar juntatu ginen Berlingo maratoia egitera joateko. Errazena laster egin genuen: Internet bitartez dortsala ordaindu. Eta han hasi zen preparazioa: kilometroak korrika bidegorrietan, Lierniko *altorendimienton*, edo oporretako hondartza ertzean. Eta hilean behin, preparazioan taldekako jarraipena egiteko eta kontuak lotzen joateko afaria soziedadean. Eta laguntzeko sagardo freskoa! Hori bai; jana kirolariena: oilaskoa (patata frijituekin izateak ez dio indarrrik kentzen ezta?). Eta denbora aurrera. Eta azkenean iritsi zen 2010eko iraila.

Hilaren 24an irten ginen Zeraindik, ostiralez. Bilbora joan, handik hegazkina hartu eta Berlinera. Larunbata lasai antzean pasa genuen eta ederki afaldu ondoren ohera garaiz-garaiz. Igandea goiz hasi zen. Ondo gosalduta indarrak hartzeko (oraingoan ez zen sagardo eta zerbezarik egon), trena hartu eta irteera puntura. Giro bustia eta freskoa. Geldi egoteko ez hain ona, baina korrikarako ederra. Eta Berlingo parke handienetako batean, ia 40.000 lagun eta 42 kilometro aurretik.

Eta iritsi zen unea. Hilabetetako entrenamenduen ondoren, hainbat afari, kontu eta zerbezaren ondoren, azkenean benetan korrika hasteko garaia. Gure artean erritmo, sasoi eta gaitasun ezberdineko jendea. Eta hala irten ginen: bat aurretik, bi ondoren, beste bi atzeraxeago eta seigarren bat ere bai segidan. Ibilbidean bakoitzak bere gorabeherak izango zituen (nik besteenak ezin jakin), baina metroz metro, pausoz pauso, animatzeari uzten ez zion publiko nekaezinaren indarrak lagunduta joan ginen aurrera. Eta azkenean, Brandenburgoko ate ezaguna azpitik zeharkatu eta azken metroak metara. Zaila da hitzez hori azaltzea.

Sei lagun joan ginen, eta seiok primeran amaitu genuen. Lehenengoa hiru ordu osatu gabe sartu zen helmugara eta gutako azkena handik ordubete baino gutxiagora. Eta onena helmugatik gertu zegoen garagardotegian juntatzen gindoazen heinean elkarri emandako besarkadak eta hartutako zerbezak. Gorputza nekatuta, baina lehertu gabe, elkarrekin bazkari-afaria egin eta zerbezak edanez ospatu genuen. Arratsalde-iluntze ederra izan zen.



Berlingo legebiltzarraren aurrean maratoiaren aurretik.

Behin Alemanian egonik, Berlin hiria bisitatzeko eta Munich-en egiten den beste edan-festa erraldoi batean murgiltzeko ere aprobetxatu genuen. Behin kirola egin eta helburua beteta, dena libre! Baina tira, kontu horiek akaso beste baterako utziko ditugu!

Eta norbaitek honezkero galdetuko zuen ea errekorra nola egin ote genuen hiru ordutik gora pasata maratoitxo bat egiteko? Denboran ez genuen ez aparteko markarik ezarri. Baina 250 biztanleko zein herritatik ote doaz 6 maratoia korritzera? Alegia, ba ote da munduan beste herririk biztanleen %2,4k Berlingo maratoia korritu duenik?

Egia esan ez zaigu gehiegi inporta. Gure helburuak beste batzuk baitziren. Baina abentura eta bidaia polit hura konpartitu genuen sei zeraindarrok ez dugu erraz ahaztuko. Mandion zerbezen inguruan hasitako istorioak gure artean adin, egoera eta izaera oso ezberdineko herritarrak elkarren lagun egiteko behintzat balio izan du. Momentuz, beste proiektu konkreturik ez daukagu, baina afariak egiten jarraitzen dugu eta Mandion ere zerbezak ateratzen dituzte. Lehengaiak badaude eta seguru irtengo dela beste zerbait, norbaitek animatu nahi badu.

A! Eta hainbeste konturekin ia ahaztu zait esatea sei "maratoilariak" zeintzuk garen: Jexux Ezeizabarrena, Mikel Iturrioz, Urko Larrea, Aitzol Telleria, Iker Aizpeolea eta Ion Muñoa.

Ion Muñoa

Bertsoak

Zeraingo festak

Doinua: Ai zapotxin

AI ZAPOTXIN
EZ DAGO ZER EGIN
ZERAINGO FESTAK
HEMENTXE GUREKIN!

2)
Abuztuak hamalau
da umen egune
puzgarri ta play backa
da gaztetxon gun.

4)
Abuztuak hamasei
da herri afari
santua San Roke deu
herriko zaindari.

1)
Zeraingo festak dira
nunduko onenak
nahiz ta txikia izan
emateittu lanak.

3)
Abuztuak hamabost
degu andra mari
txakolin dastatzean
hitz eitte ugari.

5)
Bukatu dira festak
denok garbitzera
furrengo festatan e
ikusiko gera.



Oso ondo pasa festak!!!!!!

Maialen Alustiza

Asmakizunak

a) PUNTAN-PUNTAN BI
ATZEAN ZULO BI.

b) BILDURRA DIO SUAK
LANDAREEK ALDIZ
MAITASUNA.

c) GOZO-GOZO ETA
ZURI-ZURI
URETAN INORK EZIN IKUSI.



d) BI MENDIEN ARTEKO
TIRO ZARATATSUA,
SUDURRA ISTEKO MODUKO
TIRO USAINTSUA.

e) USAIMEN HANDIKO
ABEREA
ETXE BARRUKO EHIZTARIA
EZ BADUZU ZAINZEN
SUKALDEA
JAKI GOXOEN HARRAPARIA.

Erantzunak: a) Goraizeak; b) Ura; c) azukrea; d) puzkerra; e) katu

Zeraingo eskolako umeak



TXIRBIL AROZTEGIA
Leihoak eta iskilarak neurrira
Ateak, zoruak, armairuak,...

Egurrezko Bizikletak
www.axalko.com



txirbil@txirbil.com
Tel: 943 800 208

Gari-alea

Gari-ale bat bakarrik geratu zen soro batean beste gari-ale guztiak bildu ondoren. Inurri batek aurkitu zuen eta bizkar gainean jarri zuen. Kostatu zitzaion baina lortu zuen, asko pisatzen zuen eta. Bizkarrean zuela urrutiko inurritegirantz abiatu zen.

- Zergatik ez nauzu uzten nengoen lekuan? - esan zion gari-aleak.

- Aurkitutako ale guztiak jakitegira eramatea delako nire eginbeharra - erantzun zion inurriak.

- Baina ni ez naiz jateko. Ni biziz betea nago eta nire lana landare bat sortaraztea da. Entzun, egin dezagun tratu bat. Ni hemen soroan uzten banauzu, hemendik urtebetera ni bezalako ehun ale emango dizkizut.

Inurriak harriturik eta sinetsi ezinik begiratu zion.

- Adiskidea, sinets ezazu, egia da eta.

- Eta nola lortuko duzu hori?

- Misterio bat da. Egizu zulotxo bat, sar nazazu bertan eta itzuli urtebete barru. Itzuli zen inurria urtebetera eta gari-aleak emandako hitza bete egin zuela ikusi zuen.



Ume aberatsa eta ume behartsua

Arkaitz eta Eneko elkarrengandik hurbil bizi ziren: Eneko etxe eder eta eroso batean; Arkaitz, berriz, etxola moduko batean. Haur aberatsak jostailuz beteriko gela zeukan; Haur behartsua pozik joaten zen ohera platerkada zopa izaten bazuen.

Mutiko aberatsa, arropa garestiz dotore eta markakoz jantzita ibiltzen zen, triste jartzen zen auzokoa gutxietsi egiten zuen, arropa zaharrak eta itsusi samarrak ibiltzen zituelako.

Urteak igaro eta elkar ikusteari utzi zioten, baina egun batean berriro elkartu ziren arte. Enekok porrot eginda ematen zuen; Arkaitzek automobil garesti bat gidatzen zuen.

- Arkaitz zara ezta? -galdetu zion Enekok-. Bizitzan aurrera egin duzu, e? zortea izan duzu jokoan ala?

- Ez, gogor lan egin dut ...

Enekok buru makur alde egin zuen. Haren lan guztia, nolabait deitzekotan, gurasoen lana ordezkatzeko edo nolabait erabiltzeko izan baizen.



Sudokua

Osatu sudoku hau:

3				4		5		
	4			8	9		2	3
5	7		6				9	
	9	8		5	1	2		
2		1				4		5
		4	3	2		6	1	
	1				2		5	8
9	6		8	3			7	
		7		9				6

Hitz-jokoa

Osatu 7 hitz hizki hauekin:

A T A E H L O K I

- Atea

-

-

-

-

-

-

Hizki-zopa

Aurkitu Zeraingo lekuen izenak hemen:

A	B	K	A	R	T	Z	E	L	A
S	M	A	N	D	I	O	I	O	P
D	U	R	E	K	L	M	K	R	S
G	S	T	I	J	N	E	A	T	U
H	E	O	N	S	N	A	S	Z	X
J	O	B	T	U	O	I	T	L	M
T	A	U	X	S	A	R	O	K	P
I	M	I	N	A	K	I	L	N	R
I	A	D	H	O	S	T	A	T	U
M	E	Z	J	G	A	R	M	A	I

Hitz-gurutzatua

Osatu kontinenteen izenak:

	O		E	A		I	A
			U				F
		A					
		M					I
				P			
A		I					





Zerain (Gipuzkoa) - Tfnoa. 943 800 100
www.lumagorri.es



LumaGorri



Dastatu desberdintasuna



JOXE TELLERIA, S.L.
Aseguruak . Korreduria

Plaza Erauskin, 2
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 882 643 / 943 887 155
Fax: 943 887 155